



ELKARRIZKETA: ITXARO BORDA, IPARRALDEKO IDAZLEA

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Martxoak 6  
398. zenb.

## ANTZINAKO AUTOAK



IKUSPEGIA: IBAN DEL CAMPO • KIROLAK: ROBERTO AZKARATE  
IRITZIA: MAITE BARREÑA • 30 GALDERATAN: ALBERTO PRECIADO



**ALMEN**

**SAN FRANTZISKO  
XABIER**

**SAN VIATOR**

**UMEZAINZA**

Hezibide bailarari hezkuntz egitura kooperatibo aberatsa ematen dion elkartea, gure eskeintza azaldu nahi dugu.

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak.



# Deba Garaian etorkizuna eraikitzen



- zuk eraiki duzun eskola: ikastola.
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza.
- etengabeko hobekuntzako konpromezua.
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa.

**MATRIKULA** otsailaren 26tik martxoaren 11ra **ZABALIK**

# zatoz ezagutzera



# Mezuen banpirizazioa

**G**ehiegieria galanta da gaur egun gutako bakoitzak jaso dezakeen mezu kopurua. Nahiz eta guk gura ez izan paradisu artifiziale tarantz bideratzen gaituzten mezuok, banpiro ikustezi-nak balira bezala ditugu gainean. Eta badakigu hauetako mezu asko gure larruzalean geratzen zaizkigula erantsita, ustekabean harrapatutako horzkada likitsak bezala.

Baina xurgatzaile ikustezin hauek ase ezinak dira eta mezu bat bestearen gainean eransten digute, kontrolik gabe, mezuon zentzua guztiz galdu arte, gaur egungo nahaste-borrasteen ezer gehiago irensteko ahalmena galdu arte.

Telebista, publizitatea, zinema, irratia, literatura, musika, prentsa, Internet, gaur



Iban del Campo

egungo artea... "Dena alferrik!", esango dute batzuek. "Ni ez nau inork aldatzen". "Inoiz ez dut jaberik izango". Baina, dirudienez, mezuon banpirizazio honek aztoratuta, hankaz gora eta bilutsik uzten gaitu. Adibidez gazteok, telebista aurrean liluraturik, beste bizitza proiekturik eraiki gabe geratzen omen gara

Beraz, zer izango da kaltegarriagoa, mezu bat ere ez irenstea ala mezuon gehiegieriaz aztoratuta bizitzea? Lehenengo kasua ezinezkoa dela esango nuke, eta bigarrena bakoitzaren eskuan egon liteke. Baina argi dago aztorapen honek erantzun bitxiak sortzen dituela bakoitzaren galbahean. (Zein da erantsi zaizun azken mezu?).

Gauzak honela, orain dela gutxi film argentinar batean (gozo-gozo hitz egiten duten horietakoan) entzundako mezu-esaldi

bat daramat tatuaturik: "Ez dago munduan jaberik duen emakumerik". Batzuetan txiripaz eransten zaigun edozein mezuk, aparteko esanahia hartzen du guretzat, eta esaldiaren enberrari adarrak eta adarrak iritelen zaizkio etengabe. Lehenbizi, argi gera dadila itsatsi zaidan esaldiak ez duela zentzurik galtzen gizonezkoei edo hermafroditei aplikatzerakoan.

Hau esanda, guztiak bateratzen dituen esaldia (emakumezkoak, gizonezkoak eta hermafroditak) edo hiru adar hauen enborra hurrengo izango litzateke: "Ez dago munduan jaberik duen pertsonarik".

Hori bai, ni ez naiz ausartzen mezu honen esanahia inola ere mugatzera. Bidezkoagoa eta erosoagoa iruditzen zait bakoitzak bere neurrira moldatzea.

Nire partetik, "esalditxo" eguneroko zalantzei erantzuna emateko erabiliko dut.

Oraingo, bi eremu delikatu bezain sutsutan aplikatzera gonbidatzen zaituztet: harreman sentimentaletan eta lanean.


## "Ez dago munduan jaberik duen pertsonarik"

### 397. zenbaki honetan

1998ko martxoaren 6an

Asteko agenda.....	<b>4/5</b>	Orain eta hemen .....	<b>11/12</b>	Kulturaren txokoa .....	<b>29</b>
Irakurlea idazle .....	<b>6</b>	Haratuzteak 98.....	<b>14/15</b>	Azoka plaza .....	<b>30/31</b>
Inkesta.....	<b>7</b>	Asteko gaia .....	<b>17/19</b>	Denborapasak .....	<b>32</b>
Euren ikuspuntutik .....	<b>8</b>	Kirolak jokoan.....	<b>20/23</b>	Ikusi eta entzun .....	<b>33</b>
Astearen errepasoa.....	<b>9</b>	30 galderatan .....	<b>28</b>	Fotozaharra .....	<b>34</b>

<i>Ikuspegia</i>	
<b>Iban del Campo</b> .....	<b>3</b>
<i>Euren ikuspegitik</i>	
<b>Maite Barreña</b> .....	<b>8</b>
<i>Kirolaren txokoa</i>	
<b>Roberto Azkarate</b> .....	<b>22</b>
<i>Aurrez aurre</i>	
<b>Itxaro Borda</b> .....	<b>24/25</b>
<i>Kulturaren txokoa</i>	
<b>Iziar opera</b> .....	<b>28</b>
<i>Asteko gaia</i>	
<b>Antzinako autoak</b> .....	<b>17/19</b>



Antzinako autoek oraindik erakargarritasun berezia dute. Aste honetako erreportajearen auto zaharrak dituzten zortzi lagun elkartu ditugu.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otilora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40 E-mail: arrasatepress@readysoft.es

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ixerme Altube (Tel.: 79 02 26). **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Altor Orobenegoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.



Arrasateko Udalerria laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundien laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailearen laguntzaz



6

ostirala

■ ZINEA

*Matame mucho.* Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

■ ADINEKO GAIXOAK  
ETXEAN NOLA ZAINDU  
III ASTEA

Gaia: *Bakardaslea: Etor-kizun irekia.* Hizlaria: Angel Moreno, teologoa. San Andres parrokian, Ibañez doktorea, 1. behe, arratsaldeko 19:00etan. Osasun Pas-toraltzak antolatuta.

■ ARRASATE  
MUSIKALEN EMANALDIA

Piano emanaldia, Arrasate Musikaleko areto nagusian, arratsaldeko 19.00etan.

■ SAN JUAN DE DIOS  
OSPITALEAN TOPAKETAK

Alzheimer gaixotasunari buruzko topaketak, San Juan de Dios ospitalean, arratsaldeko 17:00etan hasita.

7

larunbata

■ ZINEA

*Las brigadas del espacio.* Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ EMAKUMEAREN  
NAZIOARTE EGUNEKO  
EKINTZAK

Baserritar eta artisauen azoka, goizeko 09:30etatik aurrera. *Melody Sisters* antzerki taldeak *Con lo Puesto* izeneko antzezlan eskainiko du Amaian, gaueko 22:30etan.

■ IGERILEKUA ITXITA

Igeriketa txapelketa jokatuta behar denez, Musakolako igerilekua itxita egongo da arratsaldean.

■ SAN JUAN DE DIOS  
OSPITALAREN EGUNA

Meza goizeko 11:00etan. Futbol partida 11:45etan. Ondoren, bazkaria. Arratsaldean: dantzaldiak, jokoak, txokolatada eta sari banaketa, besteak beste.

■ MUSIKA EMANALDIK  
GAZTETXEAN

*Anestesia* eta *Fly Shit* taldeen emanaldia Gaztetxean, gaueko 21:00etan. *Anestesia* taldeak *Gu* izeneko diskoaren aurkezpena egingo du.

8

igandea

■ ZINEA

*Las brigadas del espacio.* Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ EMAKUMEAREN  
NAZIOARTEKO EGUNA

Luntxa, dantzariak, trikitilariak, kaleko antzerkia, talogileak. Egurdiko 12:30etatik 15:00ak arte. Kale agerraldia Seberon hasita, arratsaldeko 19:30etan.

■ IZIAR EUSKAL  
GANBERA OPERA

Iziar Euskal Ganbera operaren emanaldia Amaia antzokian, arratsaldeko 19.00etan. Sarrera: 2.000 pezeta (bazkideentzat 1.500 pezeta). Arrasate Musikalek antolatuta

9

astelehena

■ ZINEA

*Las brigadas del espacio.* Alai Zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30etan.

■ GAZTE ASTEA

Kalejira Arbolapetik hasita, arratsaldeko 18:00etan. Mahaingurua Monterronen arratsaldeko 19:00etan. Gaia: *Euskal Presoak Euskal Herri-rra! Gazteok Zer?* Hizlariak: Intxaurrendoko Gazte Eki-mentza, AABB eta Senideak. Arrasateko Gazte Asteak antolatuta.

■ ODOL EMATEA

Arrasateko Anbulatorioan, arratsaldeko 16:30etatik 20:00ak arte.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta  
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA  
AMNIOZENTESIA  
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA  
BASEKTOMIA  
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

MUXIBAR PIZZERIA  
79 11 25  
ADI!!!  
otsailak 9tik aurrera...  
ORDUTEGI BERRIA  
arratsaldeko 6etatik aurrera ZABALIK egunero!



# 10

## asteartea

### ■ ZINEA

*Las brigadas del espacio.*  
Alai Zineman arratsaldeko  
19:00etan eta 21:30etan.

### ■ GAZTE ASTEKO EKITALDIK

Musika berriak eta luntxa,  
Harresi aretoan, arratsaldeko  
18:00etan. Hitzaldia Monte-  
rroren, arratsaldeko  
19:00etan. Gaia: *Gazteak eta  
Euskara: Bizitzeko Arnasa  
Hartu Behar.* Hizlaria: Ima-  
nol Esnaola.

### ■ ODOL EMATEA

Arrasateko Anbulatorio-  
an, arratsaldeko 16:30etatik  
20:00ak arte

# 11

## asteazkena

### ■ GAZTE ASTEKO EKINTZAK

Bideo-tertua Monterro-  
ren, arratsaldeko 19:00etan.  
Gaia: *Drogen Gaia Aztertzuz,  
Askatasuna Landuz.* Hitzal-  
dia Eskola Politeknikoan izan-  
go da, arratsaldeko 19:00etan.  
Gaia: *Euskal Herriko Histo-  
ria, Aro Modernoa.* Hizlaria:  
Amagoia Ormaza.

### ■ HITZALDIA ALMENEN

Gaia: 3. mailako ziklo for-  
matiboak. Hizlaria: Paco Mar-  
tinez de Contrasta. Almene-  
ko areto nagusian. 18:00etan.

# 12

## osteguna

### ■ GAZTE ASTEKO EKINTZAK

Hitzaldi-tertua Monte-  
rroren, arratsaldeko 19:00etan.  
Gaia: *Zer da Internet? Gazte  
Taldeen Aukerak.* Hizlariak:  
Patxi Gaztelumendi, Justo de  
la Cueva eta Jabi Zabala. 7  
*eskale* taldea Amaian, gaue-  
ko 21:00etan dohainik.

### ■ EZKONTZA AURREKO TOPAKETAK

Martxoaren 9tik 13ra  
arte, ezkontza aurreko  
topaketak egingo dira  
Abadetxean, arratsaldeko  
20:30etatik 22:00etara.

### ■ OTOITZ TOPAKETAK OSTEGUNERO

Garizumako ostegun  
guztietan otoitz topaketak  
egingo dira San Frantzisko  
elizan, arratsaldeko  
20:00etan.

### ■ GAZTE ASTEAK ANTO- LATUTAKO ERAKUSKETAK

Martxoaren 9tik 15era  
arte, hainbat erakusketa  
izango dira Arrasaten.  
*Harresi aretoan, Artista  
gazteen erakusketak  
arratsaldeko 18:00etatik  
20:00etara. Monterroren,  
Lastertasun Handiko  
Trenaren aurka eta Alterna-  
tiba demokratikoari  
buruzko erakusketak.  
Seberon Frantziskotarre-  
tan, Euskal Musika,  
tresnak eta txalaparta.  
Plazan; gazteen aurkako  
zapalkuntzari buruzko  
erakusketa. Ikastetxeetan;  
Iparraldeko ikastolen  
aldeko argazkiak. Gazte*

*Txokoetan, musika eta  
bideo-klip emanaldien  
erakusketa. Seberon, mural  
errolloia goizez eta  
arratsaldez.*

### ■ EUSKADIKO KUTXAREN BATZAR OROKORRA

Euskadiko Kutxak ohiko  
batzar orokorra egingo du  
martxoaren 13an, ostirala,  
Amaia antzokian arratsal-  
deko 16:30etan.

### ■ ESKI IBILALDIA MENDIAN BESAIDEREKIN

Besaide Mendizale  
Elkarteak eski ibilaldia  
antolatu du Hechon,  
martxoaren 14rako eta  
15erako. Izen ematea  
martxoaren 9an eta 10ean  
egin behar da, Besaideren  
egoitzan, arratsaldeko  
19:30etatik 20:30etara.

### ■ BEDOÑATARREN BAZKARIA

Martxoaren 15ean  
Bedoñan jaiotakoek  
bazkaria izango dute  
Errastikua jatetxean.  
Eguerdiko 12:30etan meza  
eta ondoren bazkaria. Izen  
ematea Errastikua jatetxe-  
an egin behar da (79 10  
13).



# Danona

## KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 79 58 06



### ESKER ONA

1998ko otsailaren 10ean hil zen  
**Luis Maria Madinaren** familiak  
bihotzez eskertzen ditu jasotako  
doluminak, eta hileta  
elizkizunera agertu izana.



## MARTXOAK 8, EMAKUME LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Euskal Herriko emakumeak Egaizki bizi gara, egunero bizkar gainean pilatutako lan mordoaren zamaren nekez eskuak urraturik, nekaturik, iguina sortzeraino gogorra eta zapaltzailea den gizarte kapitalista eta patriarkal honetan. Gure lana, bizitzaren birsortzerako ezinbestekoa dena, aipatu ere ez da egiten. Ez dago. Ikustezina da. Gainera, loturik ikusten ditugu emakumeak, bizitza propiorik gabe, benetako burujabetasunik gabe. Hortxe daude emakume askoren heriotza bortitzak, tokatzen zaizkien lagunek (senarrak, amoranteak, bizilagunak edo ezezagunak) eginak.

Gizartea lanaren eta aberastasunaren banaketa eskatuz mugitzen den honetan, emakumeok aldarrikatzeko eta eskatzeko asko dugu. Hego Euskal Herrian 1.100.000 emakume gara lan egiteko sasoian gaudenak. Hauetatik 200.000 dira lan ordaindua dutenak, 100.000 langabezian daude eta 700.000k etxeko lanetan dihardute. Azken hauek, noski, ez dira kontuan hartzen. Etxeko lanetan dihardutenak biztanleria aktiboan sartzeak ekarriko luke okupazio tasen analisiak modu esanguratsuan aldatzea, langabezia maila benetan igoko litzateke eta emakumeen errealitate sozial-laborala bere egiazko gordin-tasunean agertuko litzateke. Zapalkuntza odoltsua, lotsagabea: emakumeok etxean egiten dugun lana ez da ordain-

tzen, baina egiazko aberastasuna sortzen du, hau da, Barne Produktu Gordinaren %35.

Ondorioz, ezinbestekoa da lanaren banaketa eskatzea. Baita gutxieneko soldata ere, ordaindutako lanik ez dutenentzat (emakumeak nahiz gizonak). Hau ezinbesteko oinarria da emakumeok diru burujabetasuna irabazteko eta gure bizitzen norabidea geure esku jartzeko.

Emakume euskaldunok baldintza berdinetan parte hartu nahi dugu, eskubideei eta ardurei dagokienez, gizarte berrian: askea, elkartasunean, berdintasunean eta komunitate berri batean oinarritua eta euskalduna. Horren alde ari gara lanean, tinkotasunez eta ilusio handiz.

*Egizan. Arrasate*

## NOIZ ARTE?

Eusko Legebiltzarrak euskal preso politikoak Euskal Herriratzea eskatu zuela bi urte eta erdi igaro direnean, horren alde milaka jarrera agertu eta milaka mobilizazio burutu direnean, elkartasun jarre-rak askotarikoak izan direnean; ETA erakunde armatuak espetxeen frontean suetena aldarrikatu zuela hiru hilabete betetzen direnean, batzuek jarrera hau gutxietsi nahi badute ere, ezin zaio garrantzirik uka. Denbora honetan guztian Euskal presoek egoera ez da aldatu eta ez da hobetu. Alderantziz, okerrera egin du.

Euskal presoek Euskal Herritik mila kilometrora segitzen dute, inongo laguntzarik

jaso gabe, Pedrotxok eta Gaztañagak bezala, edo *Gautxori* legez, jaio berri zaion semea ezagutzen ez duela, edo Jon eta Pedrotxo moduan, bahiturik kondanaren hiru laurdenak beteak dituztenean, edo *Garratz* legez, Euskal Herritik 3.000 kilometrora sakabanaketa hasi zenetik, edo Goio bezala, *txapatuta* ziegetan bizi baldintza duinen alde borrokan dabilelako, edo Parisen espetxerata dauden Pilar eta Arantxa kasu, edo eta Joseba bezala, inolako babes eta berme juridikorik gabe, edo Unai moduan, erabateko isolamenduan, Josu eta *Eperra* bezala, azken hauek zazpi hilabete egoera horretan.

Ez Estrasburgok ez eta inongo Europako Parlamenturik ez dute euskal presoek bizitza bermatuko. Gizartearen konpromezuak eta borroka soilik ekarriko ditu euskal presoak Euskal Herrira, haiek ezarritako demokrazia ustel hori hautsiz.

Azkenik, herriari gogorazazi nahi diogu hilabete honetan bi epaiketa izango direla. Bata Madrilen eta bestea Parisen. Hurrengo ostegunean, martxoaren 12an, Josu Arkauzen aurkako epaiketa egingo da Madrilen. 142 urteko eskakizunari egin beharko dio aurre. Parisen, bestalde, martxoaren 26an, Pilar Mondragon epaituko dute. Adi egon, autobusak antolatuko dira eta.

*Amnistiaren bidean, euskal presoak Euskal Herrira orain!*

*Amnistiaren Aldeko Komitea*

## FUNERARIA ARRASATEK BERRIZ ERE EGIN DU BEREIA

Heriotza guztiak berez tris-teak badira ere, beti azaltzen da samina jasangaitzagoa egiten digun zerbait edo norbait. Oraingoan ere *Funeraria Arrasate* izan da.

Joan den igandean Bergaran osaba hil ondoren, prepotentziaz jantziriko jaun erdaldun bat azaldu zitzaigun baserrian. Esperientziak hala erakutsita, ordurako prest geneukan eskela, euskaraz jakina. Euskarazko testua erdaraz irakurri zuela konturatu ondoren, mesedez zegoeneten kaleratzeko eskatu zitzaion, euskaraz. Erantzuna: *Si quieres lo haces tu..., ¿dudas de mi trabajo...?*

Azkenean, etxeko eta kanpokoan aurrean eztabaida ebizatzearen (ez baita inorentzat une goxoa izaten) komunikabidetakoa geure gain hartu genuen (ez baitzen horren erantzule egiten) eta berak kalekoaren ardura hartu zuen. Berriz ere euskara hutsean jartzeko esan zitzaion eta —*a mi me vas a decir cómo tengo que hacer mi trabajo*— entzun behar izan genuen.

Astehenean kaleko eskela guztiak **erdara hutsean** zeuden.

Heriotzaren aurrean saminez beterik dagoen familiaren egoera aprobetxatuz *Funeraria Arrasatek* egin duenak ez dauka izenik. Idatzi beharra geneukan osabak lasai atsedean har dezan.

*Loidi-Garitano anai-arrebak*

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte eta ostiraletan  
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 79 81 82

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**Memesa**

79 42 22




# Ezagutzen duzu ez erretzaileentzako tokirik duen jatetxerik?



**Esther Auzmendi**  
(42 urte)  
Medikua

Nik ez dut ezagutzen. Jate-  
txeetan erretzen ez uztea ondo  
dago, jendea jatera joaten dela-  
ko. Tabernetan berriz, asko jota  
gela banatuak ipini beharko  
lirateke.



**Jorge Garcia**  
(20 urte)  
Osorik tabernakoa

Nik ezagutzen ditudan toki  
guztietan erre daiteke. Jende-  
ak taberna eta jatetxeetan erre-  
tzeko ohitura du eta gaizki  
ikusten dut debekatzea.




**Felix Arrospe**  
(33 urte)  
Plus Ultra jatetxekoa

Bat ere ez. Gainera, ez dut  
uste ostalariak ados daudenik  
jate-xea banatzeko. Gure jate-  
txeko bezeroak ez dira seku-  
la kexatu batek edo besteak erre  
egiten duelako.



**Elisa Lezeta**  
(26 urte)  
Estankoko langilea

Estatu Batuetan badago,  
baina hemen ez. Bakoitzak  
ikusi behar du noraino erres-  
petatzen duen bestea. Erre-  
tzea ohitura soziala da eta ara-  
zoa uste baino konplikatuagoa.




**Jesus Mari Moraleja**  
(36 urte)  
Langilea

Ez dut ezagutzen. Badakit  
erretzen ez dutenei keak traba  
egiten diela, baina... Ni erre-  
tzailea naiz eta jatetxe batera  
joaterakoan, erretzea gusta-  
tzen zait.



**Nagore Olabe**  
(23 urte)  
Irakaslea

Ez dut ezagutzen. Nik ez  
dut erretzen eta egia da ez dela  
oso atsegina, baina banaketa  
egitea ere ez zait ondo irudi-  
tzen.



**Jesus Azkoaga**  
(49 urte)  
Langilea

Hemen ez dago inon ere.  
Banaketa egin beharko litzate-  
ke, baina ez bakarrik jatetxeetan.  
Lantokietan eta leku publiko  
guztietan erretoki bereziak  
egon beharko lirateke.



**Mari Jurado**  
(30 urte)  
Langilea

Ez dut ezagutzen. Ni erre-  
tzailea naiz, baina ez zait gus-  
tatzen bazkarietan jendeak erre-  
tzea. Jatetxeetan erretzaile eta  
ez erretzaileen arteko banake-  
ta egitea ondo iruditzen zait.

**Ipek Denda**



Iturriotz, 19  
(Herriko plaza) ARRASATE

**ORTO + LAGUN**  
O R T O P E D I A

**Ez badakizu zer nahi duzun  
etorri galdetzeraz!  
Guk lagunduko dizugu.**

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34



USTEAK USTE

Lege Salikoa Musakolan

**M**usakolako San Isidro elkarteak bilera berezia egin zuen joan den igandean. Bi puntu zituzten aztertzeko. Lehenengoaz irakurleak aurkituko du zer irakurri aste honetako Orain eta Hemenen. Bigarren aztergaia zen emakume bazkideak onartu ala ez.

Antza denez, elkarteko lehendakariak ia-ia agindu egin zuen Gipuzkoako gastronomia elkartei buruzko liburu batean gai hori botaziora eramango zela. Azkenean, konpromisuz edo, eraman egin behar, baina bat ere prestatu barik. Inork ez bide zuen gai horren inguruko ganorazko azalpenik egin eta emaitza ere halakoxea izan zen: 77 botu emakumeak bazkide izatearen kontra, 14 alde eta 22 abstentzio. Musakolako emakumeak, hortaz, senarren eskutik sartu beharko dira oraindik ere San Isidro elkartean.

Nire auzoko jendeak, txikitandik ezagutu dudanak, hartu du erabaki hau. Horregatik min handiagoa ematen dit. Ikusten dudalako, Espainiako Borbondarrek bezala, oraindik Lege Salikoa indarrean dugula.

Joxe Aranzabal



Emakumea

Maite Barreña

• Lan adina duten emakumeen artean %28,2k baino ez du araututako lana.

• Emakumezkoak, lan berdina eginez, %21 gutxiago kobratzen du.

• Gizonezkoen artean, %15 baino ez da etxeko lanetan aritzen.

• 1997an 91 emakume hil ziren estatu espainolean, etxeko indarkeriaren ondorioz.

• Estatu espainolean 36.000 emakumek salatu dituzte trataera txarrak (trataera txarren %5-10 baino ez da salatzen).

• Eusko Legebiltzarrean lau parlamentariotik bat baino ez da emakumea.

• ...

Emakume guztiok bizi izan dugu horrelako

egoeraren bat:

• Fakultateko mutilek zuk baino arinago topatzen dute lana, nahiz eta zuk curriculum hobea izan.

• Etxeko lanetan emakumeena da ardura. Kasurik onenetan, gizonak lagundu egiten du.

• Bikote harremana puskatu egiten da eta zure egoera ekonomikoa auskalo!

• Mekaniko edo enkofradore lana gustukoak dituzu,

baina horiek gizonen lanak dira

• ...

Zer dago honen guztiaren atzean: aukera berdintasunik eza, hau da, argi dago emakumezkoak eta gizonetzkoak ez garela berdinak, baina emakume guztiak berdinak ez direla ere argi dago; gizon guztiak berdinak ez diren moduan.

Gure apostua hau da: emakumeak eta gizonak pertsonak izatea, eskubide eta aukera berdineko pertsonak.

Hau lortzea denon lana da, denon onerako eta bidezko gizarte baten aldeko apostua delako.

Maite Barreña,  
Udalako Emakume Saileko teknikaria

“  
Gure apostua da  
emakumeak eta gizonak  
eskubide eta aukera berdineko  
pertsonak izatea  
”

**Lore**  
Lurrindegia  
Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 79 52 50

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**  
Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 79 08 07

**BASABE JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
Tel.: 79 91 84  
ARETXABALETA



## Egitaraua

### Erakusketak

- Gazte txokoetan.
- Monterron jauregian.
- Harresi aretoan.
- Frantsiskotarren kalistroetan.
- Ikastetxeetan.

### Hitzaldiak

Egunero 19:00etan Monterronen.

### Film laburren eta bidoklipen emanaldiak

Udaletzeko arkupeetan,  
Gazte-Txokoetan

### Mendi irteera

### Kale Antzerkia

### Musika emanaldiak

Gaztetxean, tabernetan eta  
**Amaia Antzokian**  
(7 eskale. Ostegunak 12,  
iluntzeko 21:00etan. Dohainik)

### Bertso bazkaria

Bazkari txartela (500 pta.). Erosi  
larunbata baino lehen AEDn,  
EKAITZEN eta Gazte-Txokoetan.

**Martxoak**  
**9-15**

# Gazte Astea Arrasaten



Berri  
gehiago  
Arrasate Presseko  
agendan.  
**BONOLAGUNTZAK**  
100 pta. leku  
guztietan.



# Heldu da Udaberria Arrasate Kirolak-era!



**ARRASATE**

**KIROLAK**

Kontzeziño, 8  
ARRASATE  
Tel.: 79 46 12



astea bi hitzetan

■ **Deba Garaiko abesbatzen topaketak**

Eskualdeko abesbatzek musika ekitaldi berezia eskaini zuten joan den igande, Arrasate Musikalen 25. urteurrena ospatzeko. Igande goizean, Arrasateko Goikobaluk, Eskoriatzako Gorosarrik, Bergarako Ariztetak eta Oñatiko abesbatzak herriko zenbait lekutan aritu ziren kantuan. Eguerdialdera berriz, ekitaldi eder-rra eskaini zuten Monterron parkean. Jendeak txaloekin eskertu zuen abesbatzen ekitaldia.

■ **Urruñako ikastolaren aldeko kanpaina**

Lapurdikiko Urruñako biztanleek ikastola berria eraikitzeko dirua bildu nahi dute. Horretarako 10.000 pezeta-ren truke, ikastolaren aurre-

aldea egiteko behar diren 1.000 harri salduko dituzte. Harria banaka nahiz taldeka eros daiteke. Harrien erosketaren bidez laguntza eskaintzen dutenen artean bidaia zozkatuko da Tenerifera. Lagundu nahi izanez gero, AEDra jo eta Hegoaxe taldekoekin jarri harremanetan.

■ **17 milioi herriko auzoetarako**

Arrasateko Udalak zenbait hobekuntza egingo ditu herriko auzoetan. Konponketa lanak mota guztietakoak izango dira, auzo bakoitzaren premien arabera. Guztira 17 milioi baino gehiago inbertituko dira. Urribarrin, 7 milioi baino gehiago gastatuko dira eta, besteak beste, auzoko elizaren aurrealdean aparkaleku bat egingo da. San Andre-

sen, J. L. Iñarra pasealekuan, Musakolan, Makatzena kalean, Garagartzan eta Gesalibarren ere konponketa lanak egingo dira.

■ **Lore Gazteak Extremadurara**

Corazón de Encinak kulturaren inguruko elkartrukea antolatu du Extremadura eta Euskadiren artean. Martxoaren 13an Lore Gazteak Valverde del Fresno herri extremadurarrera joango dira dantza ikuskizuna eskaintzera. Dantzarietz gain, euskal artisautzaren erakusketa antolatuko da. Herriko ordezkariak, euskal folklorea eta kultura erakutsiko diete extremadurarei. Gillermo Etxenike diputatua ere, hara joango da Extremadurako agintariekin harremanetan jartzera.

**ANDALUZIA EGUNA**

Al-Andalus elkarteak Andaluzia Eguna ospatu zuen joan den larunbatean. Orain hamazazpi urte, otsailaren 28an, erreferenduma egin zuten andaluziarrek eta harrezkero fetxa seinalatua da. Al-Andalusek, txirigota, dantza, bazkideen bazkaria eta umeentzako jolasekin ospatu zuen eguna.



“Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioak, Espainian milioi erdi langile baino gehiago biltzen dituenak, nahiko luke kooperatibak izatea kalitateko enpleguaren bultzatzaile nagusienak Espainian. Hori lortzeko, Antonio Graciak, federazioko lehendakariak, Euskal Herrian —Espainian sail horren izarra den Mondragon Taldeko etxea— gauzatu diren bezalako neurriak zabaltzea eskatu dio gobernuari. Graciak aldi bateko langileak ‘iraupen jakineko bazkide’ bihurtu nahi ditu, enpresaren etekinetan parte har dezaten. Horrekin batera, elkartasun fondoa sortu beharko litzateke, arrisku handiko enpresa ekimenak abian jarri ahal izateko. (...) Kooperatibetan lan egiten duten aldi bateko langileak ez dira %10era iristen; betiko enpresetan, aldiz, %32 dira”.

**CINCO DIAS**  
1998ko otsailak 11

**“EDERTU”**

Ileapaindegia • Solariuma • Depilazioa



Martxoan eta apirilean:  
Solarium eskaintza berezial!  
10 salo=6.500 pta.

San Andres auzoa • Tel.: 79 04 28 • ARRASATE

**JAI ZALE TABERNA**

- Bokatak
  - Infusio naturalak eta...
  - Pintxoak
- MARTXA TOPATUKO DUZU!**

Olarte, 37 • Tel.: 79 67 92 • ARRASATE



## Arrasatear bat eta bere emaztea hilik, auto istripuan

Imanol Gutierrez, 37 urteko arrasatearra, eta bere emaztea, 38 urtekoa, hil egin ziren joan den larunbat gauean Gasteiz inguruan izandako istripuan. Errepidean zihoazela, Mercedes Benz markako auto batek euren bidean sartu eta euren Audi 80aren kontra jo zuen. Istripuaren ondorioz, biak hilik gertatu ziren.

### Jaiotzak

• Laura Balanzategi Ayala. otsailaren 23an.

### Hildakoak


- Manuela Prieto Bermejo. 89 urte. Otsailaren 26an.
- Jose Luis Rodríguez Aznar. 66 urte. 26an
- Karmen Olano Meaurio. 79 urte. 28an.
- Valeriano Perez Temez. 87 urte. 28an.

# Joxe Uribesalgok teknologia salduko du Mexikon

Orain lau bat urte Joxe Uribesalgo enpresario arrasatearrak "Mecanizados Mexicanos" enpresa sortu zuen Mexikon, Aretxabaletan daukan Luzio Garai fundizioa Mexikon sartu ahal izateko. Uribesalgok hogeita hiru urte darama Mexikon lanean eta hauxe zen bere azken operazioa.

Kontua da orain dela gutxi, enpresa horren bitartez, tratu bat egin duela Cementos Monterrey, Mexikoko enpresa multinazionalarekin. Hitzarmenaren arabera, Cementos Monterreyk Uribesalgok bere enpresetan erabiltzen duen teknologia erabili ahal izango du, diru kopuru baten truke. Cementos Monterrey da Mexikoko bigarren enpresa eta beste 64 enpresa biltzen ditu.

Orain zenbait urte Joxe Uribesalgok bi erabaki inportante hartu zituen: alde batek, saldu egin zizkion enpre-



Joxe Uribesalgok gure enpresarioak kanpora irten behar direla uste du.

sa frantsez bati Uribesalgo lan-tegietan zituen akzioak. Horrekin batera, geratu egin zen Aretxabaletako Luzio Garai fundizioarekin. Uribesalgok diru asko sartu du fundizioan eta talde gazte batekin inguratu da. Eremu berrietan sartu da. Ospitaletan erabiltzen diren escannerrak egiten diz-

kio General Electric multinazionalari.

Lehen 26 langile zituen eta gaur egun 80 bat. Gaur egun Joxe aholkularia da Uribesalgo taldean, Luzio Garai fundizioa darama Aretxabaletan eta, bere seme-alabekin batera, Astore enpresan dabil buru-belarri.

## Egitarau zabala Arrasateko hamalau taldek antolatutako Gazte Astean

Arrasateko hamalau taldek Gazte Astea antolatu dute martxoaren 9tik 15era bitartean. *Gazteok batuz, elkarlana bultzatu* da astearen leloa, horixe bera da eta, talde antolatzaileek lortu nahi dutena: Arrasateko gazteen elkartasuna eta eguneroko arazoan aurrean eztabaida eta parte hartzea piztea. Astelehenetik aurrera, antimilitarismoa,

komunikabideak, euskara, ekologia, drogomenpekotasuna, bake proposamenak eta gaurkotasuna duten beste hainbat gai eztabaidatuko dira mahai inguru eta hitzaldietan. Horrez gain, kalejirak, herriko taldeen rock emanaldiak, mendi irteera, antzerkia... Igandean, jai egun handia ospatuko da, herri bazkariarekin bukatuko dena.



Herriko taldeek Gazte Astea aurkeztu zuten prentsaren aurrean.





Azken zazpi urte hauetan jaiotzak heriotzak baino gutxiago izan dira.

## Arrasatek 1.700 bizilagun galdu ditu azken hamabost urteotan

1900. urtean, XX. mendearen hasieran, Arrasatek 4.000 bizilagun baino gutxiago zituen. Industria herria zen, baina txikia. Handik mende erdira, 1950ean 10.000 bizilagun zituen. Hurrengo hogeita hamar urteetan, Espainiatik etorritako inmigrazioa zela eta, goia jo zuen Arrasateko biztanleriak: 1981ean 26.279 bizilagun zituen. Harrezkero, Eibarren, Barakaldon, Errenterian eta beste hainbat herri industrialdutan bezala, biztanleak galtzen doa: 1996an, azken errolda egin zen urtean, 24.571 bizilagun zituen. Dena den, ez dirudi Eibarren eta Arrasateren kasuak berdinak direnik. Orduan, zergatik biztanle galtze hori?

Azken hamabost urte hauetan jaio direnak gehiago izan dira hildakoak baino, baina kontuz, 1990etik aurrera, heriotzak jaiotzak baino gehiago dira Arrasaten. Bada beste faktore bat: emigranteak gehiago izan dira etorkinak baino. Baina hauetako asko ez dira lan bila ateratzen

diren emigranteak.

Jende asko, gazteak batez ere, Aretxabaletara eta Eskoriatzara joan da bizitzera, han etxebizitzaren prezioak dextente merkeagoak direlako. Beste batzuk, berriz, Donostian, Zarautzen edo Santo Domingo de la Calzadan enpadronatu dira, bigarren etxea hantxe erosi dutelako. Hauek ere Arrasaten bizi dira, baina komeni zaie enpadronatzea bigarren etxea duten herrian, Haziendaren zerga arintzeak handiagoak izan daitezke-

lako. Udaleko teknikarien kalkuluen arabera, Arrasateko 100 bat familia egon daitezke egoera honetan.

Biztanleak jaisteak badu bestelako ondorioz ere: Arrasateko Udalak diru gutxiago jasotzen duela, batetik, eta zinegotzi kopurua jaitsi egin daitekeela, bestetik. Gaur egun 21 zinegotzik osatzen dute Arrasateko Udalbatza. Biztanleak 20.000tik behera jaitsiz gero, lau zinegotzi galduko litzuzke, eta 17rekin geratu.

### Arrasateko biztanleen bilakaera



## San Isidro elkarteak bere etxea erosi nahi du

Musakolako San Isidro elkarteak 1952ean sortu zen. Auzoko askok parte hartu zuten elkartearen erakitzeko, baina etxea ez da elkartearena izan, Simon Arregiren familiarena baizik. Simonen aita sortzaileetako izan zen eta Simon bera ere elkartearen bazkide da. Hilero-hilero, elkarteak 17.000 ptako errenta ordaintzen dio.

Noiz edo behin egin dira ahaleginak etxea erosteko, baina inoiz ez dira ondo amaitu. Kontua da jende gaztea sartu dela azken urteotan eta horiek izan direla etxea erosteko indar handien egin dutena.

Horrela bada, igandean batzar orokorra egin zen San Isidron eta inoiz baino bazkide gehiago bildu ziren: 113. Kontuan izanda bazkideak 133 direla, ez dago bat ere txarto. Botazioan hauek izan ziren emaitzak: 67 bazkide erostearen alde agertu ziren eta 45 kontra. Beraz, oraingo zuzendaritzak Simon Arregirekin negoziatzeko agindua jaso zuen. Akordio batera iritsiko balira, batzar berezia egin beharko litzateke hitzartutakoa onartzeko. Maiatzaren 15erako, San Isidro egunerako alegia, nahiko lukete kontua erabakita izatea.

Igandeko batzarrak izan zuen bigarren puntu bat. Onartu ala ez emakumeak bazkide izatea. 77k ezetz esan zuten, 14k baietz eta 22k ez zuten boturik eman. Emakumeak, beraz, ezingo dira, oraingoan, San Isidro elkartearen bazkide izan.





## PLAY-BACK-EKO ARTISTAK JUBILATURIK?

Haratuzteetako larunbat gauean ez zuten estreinu mundialik egin, baina sekulako bazkaria egin zuten Boliñeten. Indarrak berreskuratuta, espero dezagun datorren urtean Play-Back-aren IX. edizioa.



## UDAL EUSKALTEGIEN SARIA ARRASATEN

228 lagunek parte hartu zuten Gipuzkoako udal euskaltegien lehiaketan, Herri Irratian. Milar dendak oparitutako musika ekipoa zozkatu zen asmatzaileen artean, eta irabazlea Marian Porcel izan zen. Nerea Maiztegik, Arrasa-

teko Udal Euskaltegiko zuzendariak, eta Jesus Mari Elkorok, Milar dendako jabeak, eman zioten oparia. Hau da Arrasaten geratzen den bigarren saria. Gogoratu Erdueuskaltegiarena ere hemen geratu zela.

## OPERA KANTARIAK

Goikobaluren *curriculum*a ez da nolana hikoia.

Munduko hainbat antzokitan entzun dira euren kantuak eta Donostiako Orfeoiaekin egindako emanaldiak zenbaezinak dira. Urtarrilean, Kanaria Irletan izan ziren eta otsailean Alemanian. Aldame-neko argazkia, otsailaren 22an atera zuten. Egun hartan, Bilboko abesbatzarekin batera *Turandot* opera antzeztu zuten Arriaga antzokian.







## BI PILOTARI

Etxaniz eta Elgoro pilotariek ohorezko sakea egin zuten joan den larunbatean Makatzenako frontoi zaharberrituan. Behar bezala estreinatzeko, Arrasateko pilotari gazteek bi partidu jokatu zituzten.

## IZENAK

### Jose Mari Loiti

Arrasateko alkatea izango da Arrasateko Udalaren ordezkaria Gipuzkoa *Donostia Kutxaren* batzar orokorrean. Azken ordezkaria Juan Carlos Garitano izan zen.



### Pedro Mari Ruiz de Azua

*Euskadiko Kutxako* Kalitate zuzendaria izendatu dute. Aurretik Iturriotz kaleko bulegoko buru izan zen eta baita zonalde buru. Industria Ingeniaritzan lizentziaduna da. Horrekin batera, Enpresa Administrazioan masterra du.



### Kepa Zelaia,

*Euskadiko Kutxako* enpresa medikuak beste urte batez segituko du *US Postal* txirrindulari taldeko osasun ardura-dun gisa. Toulousen, Montrealen eta San Frantziskon kirol medikuntza egin eta gero, *Fagor* eta *Motorola* txirrindulari taldeetan ere ibili zen. Galdakaon jaio zen eta hamalau urte darama Arrasateko kooperatibetan lanean.


Dolores Gomezek eta Fernando Sierrak zilarrezko ezteiak ospatu zituzten joan den larunbatean. Corazon de Encina zentrukoek opari berezia egin zioten bikoteari: Extremadurako ezkontza tipikoa La Merced-eko elizan. Mezaren ostean, extremaduratarren zentruan egin zen bazkaria, 125 gonbidaturekin.

Zorionak bikote! **EZKONTZA EXTREMADURA ERARA**



## MENDIZALETASUNA PIZTUZ

Hamar eta hamalau urte bitarteko 65 gaztek Gorbeako gailurra zapaldu zuten, Arrasate kirol proiektuak antolatutako irteeran. Antza denez, aise heldu ziren tontorrera eta irrifarretsu jarri ziren argazkilarriaren aginduetara. Kirola egiteak sekulako sasoia ematen du!






**Hello friends!**

**This is Michael Morris, an English teacher.**

*Badakizue munduan ibiltzeko ezinbestekoa dela ingelesa.*

*Horregatik egin dut hiztegi hau, Euskal Herria eta mundua lotzeko ezinbesteko tresna.*

**Connecting Basques and the world.**



**Euskara-Ingelesa ●  
Ingelesa-Euskara  
Hiztegia:**

**1.200 orri ●**


**80.000 hitz ●  
eta adiera**

**Eranskin ●  
gramatikal zabala**

**Irudiak, mapak ●  
eta bestelako  
ikasmateriala**

**Ingalaterrako ●  
nahiz EEBBetako  
ingelesa  
ahoskatzeko gidak**

**1. alearekin  
tapak doan**

**Otsailaren 28tik aurrera,  
asteazken eta larunbatetan 225 pzta. + **



# Antzinako autoak

Itxaro Zubillaga

Arrasaten ez dira auto zahar asko ikusten. Dena dela, egon badaude. Zaharra hitza entzuterakoan egoera txarrean dagoen ibilgailua datorkigu burura. Horrek ez du zertan horrela izan. Jende askok apeta moduan ditu antzinako autoak. Horregatik, gauza baliotsu bezala gordetzen dute.



Josu jaio zenetik, etxean egon da Jeep Willys-a. Josuk eta bere aitak ez dute saltzeko asmorik.

**A**ntzinako auto bat izatea, berebil zaharra, hain zuzen ere, erakargarria izan daiteke, baina era berean, garestia. Horrelako ibilgailuek zainketa berezia behar izaten dute. Sarri eraman behar izaten dira konpontzera. Beste arazo bat piezak dira. Erreportaje hau egiteko antzinako autoak dituzten zortzi lagunekin izan gara. Guztiekin berba egin ondoren, zenbait ondorio atera ditugu.

Auto zaharren jabeak normalean mekanikoak izaten dira edo mekanikazaleak. Beharbada, une honetan autoaren erabiltzailea ez da motor aditua, baina bai bere aita edo familiakoren bat. Hori, jakina, abantaila da. Bestalde, motorraren esparrua gertutik ezagutzen dutenez, piezak lortzeko orduan ez dute zailtasunik izaten. Gehienek auto zaharra bigarren ibilgailu gisa erabiltzen dute, udan osteratxo bat egiteko, baserrira joateko... Beste batzuentzat berriz, Marijo, Juanma edo Amaiarentzat, auto ofiziala izaten da.

Normalean auto hauen jabeak pozik egoten dira eta zaharrak izan arren, ez dute sal-

tezko asmorik izaten. Azken finean, gauza berezitat daukate. Pasadizo askoko ibilgailuak izaten dira, era guztietako istorioak izaten dituzte. Horregatik auto berriak baino erakargarritasun handiagoa dute. Lastertasunari dagokio-


nez, jakina da berriak baino motelago dabiltzala. Horretaz gain, traketsak eta zaratsuak dira, baina bost axola! Antzinako autoak traste zaharren edo oroitzapenen kutxan gorde beharreko tresnak?

Dena dela, auto hauek, ez badira ondo zaintzen, nahi baino buruhauste gehiago eman dezakete. Zergak, aseguruak, gasolina, konponketak... mantenimendurako dirua behar da.

Gaur egun adituak auto diseinu berriak ari dira sortzen. Hala ere, bada antzinako autoen modeloa oinarritzat hartuz, berriro bere garaian hain famatuak izan ziren autoak merkaturatu nahi duenik. Volkswagonek VW New Beetle kaleratzeko zorian da. Auto honek aspaldiko *Kakalardoaren* itxura izango du. Estatu Batuetan martxoan hasiko dira saltzen. Euskal Herrian 1999ra arte itxaron beharko da erosteko.


Kontuak kontu, antzinako autoek ere, badute xarma eta erakargarritasunik gaurko gizartean. Ez ote gara nostalgiko samarrak?

## Auto zaharren bilakaera Arrasaten



Iturria: Arrasateko Udala.





## Juanma Vitoria / Citroën 2 CV

**J**uanmak, orain dela hiru urte erosi zuen autoa Areetan, 50.000 pezetaren truke. Bere bizitzako ametsa *zaldi bi* bat izatea zen eta azkenean lortu du ametsa errealitate bihurtzea. Autoak hogei urte beteko ditu apirilean. Esan digunez, opari gisa garbiketa on bat egingo dio. Gasolinaz ibiltzen da eta benetan gutxi gastatzen du. Sarri joaten da Soriara eta 1.500 pezetarekin nahikoa du. Dena dela, *zaldi bi* gorriak apurtuta duenez gasolinaren neurgailua, behin baino gehiagotan utzi du botata errepidean. Juanmak ez du autoa saltzeko asmorik "nirea da, lehena eta oso berezia, gainera". Udan primeran ibiltzen da kapota kenduta. Neguan, berriz, hotza dela eta, beste kontu bat omen da!



## Amaia Otadui / Renault 6

**D**esegitera eraman behar zuten, baina Amaiak jakin bezain laster, erostea erabaki zuen. 35.000 pezetatan erosi zuen, orain urte bat. Autoa kamioilari batena zen, eta oso ondo zainduta zegoen. Amaiaren beharretara primeran egokitzen da: leku zabala dauka, gogorra da eta ez dio inolako buruhausterik ematen. Ahalegindu zen bigarren eskuko beste auto bat erosten, baina garestiegiak ziren. Auto honekin Almeriara, Malagara, Granadara... joan izan da eta etorri ere bai. Hain gogorra denez, *La Resistina* deitzen dio. Bidaietan zapalduz gero, esan digu orduko 120 kilometro hartzen duela. Lagunak sartzen direnean, bitxia iruditzen zaie, baina ez dira kexatzen. Renault 6ak, aurtun 25 urte beteko ditu. Zilarrezko ezteiak ospatu behar, Amaia!



## Xabier Linazisoro / Peugeot 504

**J**abea bezala, autoa ere dotorea da. Xabierrek Madrilen erosi zuen, duela hamahiru urte; beraz 27 urte ditu. 504 Coupe Pininfarina markakoa da eta karrozeria italiarra du. Motorrari buruz, primerakoa dela esan behar. Injekzio erako 69 modelokoa. Adituek ulertuko dute, jakina!

Bergarar honek esan digun legez, Madrilen bizi zen Frantziako enbaxadorearena izan zen... Xabier auto eta motorzale amorratua da eta apeta bezala erosi zuen. Nolanahi ere, ez da aduki duen bakarra. Salduko lukeen galdetzerakoan, asmo handirik ez du azaldu, baina egia esateko, ezetz ere ez du eman. Bi seme mekaniko izanda, nola emango dizkio arazoak auto zahar baina dotoreak?



## Aner Arregi / Renault 12 Familiarra

**D**uela 16 urte Anerren aitak erosi zuen. Orain semearen dibilgailua bihurtu da. Gida baimena atera eta orain lau hilabete hasi zen Renault 12 familiarra gidatzen. "*Nire anai-arrebek gida baimena atera arte, nire autoa izango da. Gero ikusi egin behar*". Anerrek hartu aurretik, errebisioa pasatu zuen. Harrezkero, ez dio gastu handirik eman. ITV ere pasatu du. Iparralderaino joan-etorriak arazo barik egin ditu. Anerrek ez luke autoa salduko "*Leku zabala dauka eta elektronikak gutxi izan arren, mekanika ona du*". Lastertasun dexente hartzen du, baina Anerrek L-a daramanez, 80tik ez dela pasatzen adierazi digu. Pasadizoren bat edo beste ere izan du berde koloreko Renault 12arekin.





## Marijo Gonzalez / Renault 8

**1** 969ko ekainaren 26an, 125.000 pezetatan erosi zuen bere aitak. Marijok, berriz, bost urte dela hartu zuen. Aurretik Seat 850 bat zuen. Seat horrekin ikasi zuen gidatzen eta horregatik oroimen onez gogoratzen du. Emakume honentzat Renault 8ak ez du xarmarik. Arrasaten ibiltzeko edo Gasteizera joateko baliagarria zaio eta gustura dabil. Dena dela, ez du bidaia luzerik egiten eta eguraldi txarrarekin ere ez da urrutira joaten. Marijok uste du inork ez duela auto zahar hori erosi, eta sekula ez du saltzea pentsatu. Autoak hasierako kolorea du. Bere aita arduratzen da dena txukun edukitzen. Renault 8ak motor sinplea dauka autoaren atzealdean. Mailetoa, berriz, aurrean. Horretaz gain, izugarriko zarata ateratzen duenez, berehala ohar zaitezke Marijo eta bere autoa badatozela.



## Josu Aiastui / Jeep Willys

**J**eep M38 Willys. Uretan ibiltzeko motorra eta metraileta eramateko tokia. Martxa motzak eta luzeak, guztira hiru, eta sinkroniarik gabekoak. Armadako autoa dirudi eta horrela da. Josuren aitak Madrilen erosi zuen 69an, Ohion eginda dagoen Jeep-a. Armadak egindako enkante batean, 46.000 pezeta ordainduz jabetu zen bitxi honetaz. Autoaren jatorrizko kolorea berdea zen, baina laru margotu zuten. Uretako motorrak asko jaten zuenez, beste bat jarri zioten. Metraileta eramatekoa ere kendu egin zuten. Josuren aita mekanikoa da eta horrelako gauzak egiten trebea. Orain, gutxitan ateratzen dute; aitak baserrira joateko eta semeek lagunekin ibiltzeko. Autoa Josu jaio zenetik egon denez etxean, familiakotzat du.



## Goio Makazaga / Seat 600

**G**oio Makazagak duela hamabi urte eskuratu zuen Seat 600a opari moduan. Egia esateko, ez zegoen egoera onean, baina bera mekanikoa denez, astindu ederra eman zion. Orain, Seat 600 zuria txukun-txukun dauka. Hala ere, esan digu hobeto jar daitekeela. Goioentzat autoa berezia da. *"Nik prestatu dut eta primeran ibiltzen naiz"*. Autoa lagun bati utzita dauka, baina ez salduta, horretarako asmorik ez du-eta, nahiz eta jakin diru dexente ari direla ordaintzen.

Seat 600 autoak gehienez orduko 110 kilometro hartzen du eta duen motorra orijinala da. Haratuzteetan moztortzeko eskatu izan diote. Behin gogoratzen du, bi bira eman ondoren, ortura joan zela. Hala ere, 600 txikia tailerrera inoiz heldu zen. Txikia, baina gogorra! Ahaztu barik! Aurten 28 urte beteko ditu.



## Jose Luis Torres / Rover 2.200 TC

**J**ose Luisek txiripaz erosi zuen. Auto istripu baten ostean, auto zaharra bota eta Rover-a ikusi zuen. 250.000 pezetatan berea egin zuen. Ingalaterratik ekarritako autoa da, 76ko abenduan egin. Hondarribiko notario batena zen. Sasoi hartan 725.925 pezeta balio zuen. Azken bederatzita urteetan, gajejan gordeta dauka, baina saltzeko asmo barik. Jose Luisek ilusioa berriro martxan jartzea da. Dena dela, pieza batzuk hondatuta dauzkanez, arazoak ditu. Jose Luis mekanikazalea da, nahiz eta aditua ez izan. Beste abantaila bat ere badu: bere laguna Jose Luis Ezkurra askotan joaten da Ingalaterrara eta handik ekartzen dizkio piezak. Autoak lau plaza ditu. Britainia Handiko autoen berezitasuna, kontinentekoek bost dituzte eta.





## Aste Santuan atsedena Zaldibarren

**B**igarren aldiko bigarren jardunaldia lasaia eta kiroltasun handikoa izan da. Talde batzuek kementsu ikusten dira eta horiek izan daitezke hurrengo aldira sailkatzeko faborito nagusiak. Hala ere, oraindik lau jardunaldi falta dira eta erabakiorrak izan daitezke taldeen etorkizuna argitzeko.

### Laburrak

#### ■ ZALDIBARKO EGUTEGIA

Zaldibar txapelketak eten bat izango du Aste Santutan eta baita Bazko astean ere. Bigarren faseko azken jardunaldia, beraz, Aste Santu ostean jokatuko da. Atsedena primeran etorriko zaie jokalariei!

#### ■ PARTIDA ERABAKIORRAK

Hurrengo jardunaldiko partidak benetan erabakiorrak izango dira. B multzoan partida interesgarriena Betraye eta Lautherbrunnen taldeek jokatuko dute. Galtzen duenak

aukera galduko du hirugarren faserako sailkatzeko. Baina hori ez da neurketa erabakior bakarra izango. KKjauri, Zotz eta Los Herediak ere irabazi egin behar dute. Naranja Mekanika eta Aurrera Bolie taldeen arteko norgehiagokan lider-

goa jokoan izango da. Ke Oxtiasek ere irabazi egin behar du Nuevo Tabernaren kontra. Egia esateko, hirugarren jardunaldia saltsa handikoa izan daiteke Zaldibarren. Ea bada, hurbiltzen direnek joko ona ikusteko parada duten!

**GASTON Y DANIELA**  
Tapizeria • Mokatak Alfonbrak

Alfonbra eta oihalez gain, haur eta gaztetxoentzako  
**altzari** sail berria topatuko duzu!

Zatoz estreinatu dugun  
erakusketa berria ezagutzera!

Kruz Gallastegi, 3 • BERGARA • Tel: 76 07 37

### BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETAK

### S. CARRASCAL S.L.

#### Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotatuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 79 01 82



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	2	2	0	0	15	4	4
Naranja Mekanika	2	2	0	0	19	9	4
Sokoakoak	2	2	0	0	8	5	4
Zotz	2	1	1	0	13	5	3
Jotakabau	2	0	1	1	4	5	1
Insert Coin	2	0	0	2	6	16	0
Nuevo taberna	2	0	0	2	9	15	0
Ke Oxtias	2	0	0	2	4	19	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Argi ibili	2	2	0	0	21	6	4
AC surcos	2	2	0	0	12	4	4
Pepelus	2	1	1	0	11	8	3
Koka Juniors	2	1	0	1	18	6	2
Jako al Rey	2	1	0	1	8	9	2
Betrayer	2	0	1	1	5	15	1
Lautherbrunen	2	0	0	2	9	17	0
Tamagotxi	2	0	0	2	3	22	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Irati STS	2	2	0	0	20	4	4
Garaje Oscar	2	2	0	0	11	5	4
Fraguel Gol	2	2	0	0	7	3	4
D.A Iriztu	2	1	0	1	6	6	2
Los Heredia	2	0	1	1	5	8	1
Kkjauri	2	0	1	1	6	19	1
Jey Holigans	2	0	0	2	3	8	0
AT Celaya	2	0	0	2	5	10	0

E taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Aldibi	2	2	0	0	13	4	4
Lorategi	2	2	0	0	13	8	4
Estrella taberna	2	1	0	1	13	13	2
Branka taberna	2	1	0	1	11	13	2
Leya	2	0	1	1	11	13	1
DKB	2	0	1	1	13	16	1
Txeyenex	1	0	0	1	4	7	0
Totem	1	0	0	1	0	4	0

## Emaitzak

### A taldea

Naranja Mek. 9 - Nuevo taberna 6  
Zotz 11 - Insert Coin 3  
Sokoakoak 3 - Jotakabau 2  
Aurre Bolie 9 - Ke Oxtias 1

### B taldea

Argi ibili 11 - Betrayer 1  
Jako al Rey 11 - AC surcos 8  
Koka Juniors 15 - Tamagotxi 2  
Pepelus 7 - Lautherbrunen 4

### D taldea

Fraguel gol 2 - Jey Holigans 1  
Kkjauri 2 - Los Heredia 3  
DA iriztu 1 - Irati STs 4  
Garaje Oscar 5 - AT Celaya 3

### E taldea

Estrella Taberna 4 - Lorategi 7  
Totem 0 - Aldibi 4  
Branka Taberna 7 - Txeyenex 4  
Leya 7 - DKB 7

## Hurrengo partidak

### Martxoak 7, larunbata


#### Zaldibar

08:50 DA Iriztu - Kkjauri  
10:00 Irati STS - Los Heredia  
11:00 Sokoakoak - Zotz  
12:00 Naranja Mekanika - Aurrera Bolie  
13:00 Lorategi - DKB  
14:00 Betrayer - Lautherbrunen  
15:00 Koka Junior - Jako al Rey  
16:00 Tamagotxi - Ac Surcos  
17:00 Argi Ibilu - Pelelus  
18:00 Jotakabau - Insert Coin  
19:00 Branka Taberna - Totem

### Martxoak 8, igandea

#### Zaldibar

08:50 Nuevo Taberna - Ke Oxtias  
10:00 Estrella Taberna - Leya  
11:00 Jey Holigans - At Celaya  
12:00 Txeyenex - Aldibi  
13:00 Fraguel Gol - Garaje Oscar



## Uribe auzoa txapelketa

### Hurrengo partidak

#### Martxoak 7 Larunbata

##### Iturripe A

10:00 P3000 - Racing Molotov  
11:00 Spoting - Fraguel Gol  
12:00 Dribling - Zigarrolako Mutilzaharrak  
13:00 MR Magoo - Leya TMT  
14:00 Sporting de Tron. - Kom. Alpargat  
15:00 Piernodoiuna - Rotor de Bolbogrado  
16:00 Mendizabal P de P - Felpudo Maldito  
17:00 Milan Tokao - Nuevo Taberna  
18:00 Hilarion Jatetxea - Borrock roll  
19:00 Trotabares - Babajana Sexy

##### Iturripe B

13:00 Munar Txiki - Doble Cero  
14:00 Rex 22 - Decadencia  
15:00 Ainarexia - Chuleton Rovers  
16:00 DKB - Elvis Team  
17:00 AC Massive - Argi Plastic  
18:00 Kamasutra - Cartonajes Igamo  
19:00 Motonabo Turbo - La Ostra Azul

#### Martxoak 8, igandea

##### Iturripe A

11:00 Bortxitxak - Astoen Vila  
12:00 Blind - Txotx  
13:00 Alai Gozokiak - El Milagro de Baut.

##### Iturripe B

11:00 Medio Grano - Potrosorri  
12:00 Xhass - Balon Rojo  
13:00 Pening Lapsus - Akta

### Emaitzak

#### A taldea

Milan Tokao 5 - Sporting de T. 5  
Trotabares 3 - Nuevo taberna 2  
DKB 13 - Babajana Sexy 0  
Piernodoiuna S. 2 - Elvis Team 4  
Dribling 6 - Rotor de Bolbogrado 5  
Kom. Alpargat 5 - Zigar. Mutil. 1

#### B taldea

Medio Grano 5 - Mr Magoo 1  
Kamasutra 7 - Potrosorri 2  
Spoting 5 - Cartonajes Igamo 2  
Motonabo Turbo 1 - Fraguel Gol 1  
Xhass 4 - La Ostra Azul 1  
Leya TMT 6 - Balon Rojo 2

#### D taldea

Bortxitxak 2 - Rex22 1  
Pening Lapsus 2 - Astoen Villa 1  
Blind 1 - Akta 6  
Munar Txiki 6 - Txotx 4  
Hilarion Jatetxea 0 - Doble Cero 13  
Decadencia 2 - Borrock Roll 3

#### E taldea

P3000 9 - Mendizabal P de P 2  
AC Massive 0 - Felpudo Maldito 14  
Ainarexia 5 - Argi plastic 6  
Alai gozokiak 1 - Chuleton R. 6  
Kalandrax 3 - Milagro de Bau. 5

### URIBE AUZOA TXAPELKETA

Uribe Auzoa txapelketa hasi baino ez da egin, eta oraindik ezin dugu ondorioz atera. Lau multzo nagusitan daude banatuta taldeak eta bakoitzetik lehenengo laurak sailkatuko dira. Lehen aldia amaitzeko hamaika jardunaldi geratzen zaizkie jokalariei.



Saskibaloia Taldeko Entrenatzailea

## ROBERTO AZKARATE

*"Bigarren mailari eusteko gogor egingo dugu lan"*

— Nola animatu zara entrenatzaile izatera?

— Ez nuen entrenatzaile izateko asmorik, baina zuzendaritzakoak nigana etorri ziren. Irailean ezetz esan nuen. Gabonetan, berriro esan zidaten eta hementxe nago. Laguntzeko animatu naiz, nire ustez saskibaloia alde lan polita egiten ari direlako.

— Nola aurkitu duzu taldea?

— Boladaka jokatzen du. Jarraikortasuna falta zaigu. Txarrena da akatsak konpontzeko denbora laburra dugula, eta entrenamenduak ere ez direla asko. Dena dela, jendea ilusioz beterik dago eta lan egiteko gogoz.

— Taldeko hutsunerik nabarmenena?

— Jokalari gehiago falta zaigu. Sarri entrenamenduetan zortzi baino ez gara elkartzen, eta horrela ezin dugu gure artean jokatu. Jende gehiagorekin hobeto ibiliko ginateke.

— Helburua bigarren mailari eustea da. Lortuko da?


— Oraindik badugu aukerarik. Gure multzoa, itxuraz, makalena da. Talde guztiak pare-parean gaude indarrez eta horrek esan nahi du lehia handia dagoela.

— Eginkizun zaila bigarren aldirako?

— Bai horixe. Saikapenean behealdean gaude eta horrek badu eraginik. Orain, berriz, taldean entrenatzaile bat dago eta jokalari batzuek eskertu egin dute. Zaila eta etorkizun iluna izan arren, lan egiteko keme-naz gaude. Horrela uste dut helburua lortuko dugula.



## ESKUBALOIA Bigarren mailari agur




Arrasate Eskubaloia Taldeak, tamalez, agur esan dio bigarren mailari. Dena dela, oraindik denboraldia ez da bukatu eta geratzen diren partidak jokatuko beharko dituzte. Adore barik daude jokalariek eta azken boladan entrenatzaileak arazo dextente izan ditu taldea osatzeko. Egoera horretan datorrenari aurpegi ona erakutsi behar. Datorren larunbatean Gure Auzune taldea izango dute aurka Iturripen, arratsaldeko 18:00etan. Hauek hamar partida irabazi dituzte eta nahikoa lan emango diete arrasatarrei.

## ERRUGBIA Berrito atsedena



Arrasate Kirolak Errugbi Taldeak atsedena izango du berrito asteburu honetan. Hurrengoan, berriz, Euskal Herriko Unibertsitatearen kontra jokatuko du denboraldiko azken jardunaldia.

## SASKIBALOIA Itxaropen izpia



Arrasate Saskibaloia Taldeak garaipena lortu zuen azken jardunaldian. Eskuratutako puntuak primeran etorri zaizkio taldeari eta dagoeneko utzi dute saikapeneko azken tokia. Hemendik aurrera, larunbatean erakutsitako indar eta kemenarekin jokatzen segitu beharko dute. Izan ere,

bigarren mailari eusteko oraindik neurketa dextente irabazi behar dituzte. Larunbatean aurkari zaila izango dute aurrean, Ordizia hain zuzen ere. Arrasateko taldeari gerta dakioketen gauzarik onena puntuak zorroan ekartzea litzateke.

## FUTBOLA Taldea biak Atxabalpen



Preferente mailako Mondrak Urolaren kontra neurketo dituen indarrak Atxabalpen igandean, arratsaldeko 16:30etan. Jesus Mari Barrutiabengoaren mutilek 2 eta 0 galdu zuten lehen itzulian. Horrek, jakina, ez du ezer esan nahi. Saikapenean Arrasateko taldea bosgarren tokian dago; Urola, berriz, hamahirugarrenean. Usteak ustel ez badira gertatzen, irabazteko moduko partida izan daiteke.

Emakume taldeak, bestalde, Lagun Onak izango du aurkari igandean, goizeko 11:30etan Atxabalpen. Hauek Nafarroako Corellaren kontra lortutako garaipenari esker, badirudi berrito gorantzako bidea hartu dutela. Dena dela, hori zelaian erakutsi beharko dute eta horretarako zer hobeto partida irabaztea baino.

## PILOTA Deba Arroa Txapelketa



Arrasate Kirolak taldeko pilotariak Deba Arroa txapelketako partidak izango dituzte Oñatin igande goizean. Kadetetan Arrasateko ordezkariak Dominguez eta Etxeandia izango dira. Gaztetan, Lazkano eta Belategi. Nagusietan, azkenik, Osinaga eta Zugasti.



# Born Jay afizionatu mailako taldea; 98ko denboraldiko txirrindulariak



**Dabid Montero**  
Bartzelona  
24 urte  
Vestisport taldetik dator



**Joakin Soler**  
Mataro  
23 urte  
2. urtea Born Jay taldean



**Oskar Askasibar**  
Elgeta  
23 urte  
3. urtea Born Jay taldean



**Javier Migel**  
Andoain  
21 urte  
3. urtea Born Jay taldean



**Oier Garro**  
Aretxabaleta  
19 urte  
Fagor taldetik dator



**Jose Sedano**  
Arrasate  
20 urte  
2. urtea Born Jay taldean



**Jon Unanumo**  
Bergara  
20 urte  
2. urtea Born Jay taldean



**Ramon Javier Garcia**  
Elgoibar  
19 urte  
Ciclos Iñigo taldetik dator



**Antonio Urmeneta**  
Errenteria  
19 urte  
Cafes Aitona taldetik dator




**Jon Del Rio**  
Tolosa  
20 urte  
Transet taldetik dator



**Jokin Lizeaga**  
Urnieta  
19 urte  
Cafes Aitona taldetik dator



**Eduardo Jimenez**  
Laudio  
19 urte  
Saunier Duval taldetik



**Ibai Ria**  
Laudio  
19 urte  
Saunier Duval taldetik dator



**David Sojo**  
Okendo  
19 urte  
2. urtea Born Jay taldean



**Iñigo Garbalho**  
Laudio  
22 urte  
2. urtea Born Jay taldean



**Borja Sautua**  
Laudio  
21 urte  
Pan-Ocio taldetik dator



**Igor Aranburu**  
Beasain  
20 urte  
Iberdrola taldetik dator



**Ruben Gonzalez**  
Legorreta  
19 urte  
Irurok taldetik dator



## ITXARO BORDA (IDAZLEA)

# “Emakumeon literatura”

**I**txaro Borda idazlea 1959an jaio zen Baionan. Nafarroa Behereko mugan dagoen herri batean hazi zen, baina orain dela sei urte Maulera joan zen bizitzera alabarekin. Mauleko postetxean egiten du lan, idatzi egiten du eta Eperra ikastolako lehendakaria da. Joan den astean heriotzaren eta bizitzaren inguruko olerkiak irakurri zituen Arrasaten.

— Zein izan zen idatzi zenuen lehenengo liburua?

— Gazte denboran Iparraldeko aldizkari askotan kaleratzen nituen olerkiak eta horien bilduma izan zen liburua. Geroztik beste hamar bat argitaratu izan dut *Maiatz* eta *Susa* argitaletxeetan.

— *Maiatz* argitaletxeak izen bereko aldizkaria kaleratzen du aspalditik. Zuk ere hor idazten duzu...

— Hamabost urte dela sortu zen aldizkaria, Iparraldeko idazleak biltzeko asmoarekin. Adin eta jatorri desberdineta-

koak gara: langileak, ikasleak, irakasleak... Guztira hogeitabat idazle. Urtean kaleratzen diren bizpahiru aletan hartzen dugu parte.

— Nola dago literatura Iparraldean?

— Liburu gutxi kaleratzen da, baina idazle asko dago. Emakumeei dagokienez, esku bateko hatzekin konta daitezke, leku guztietan bezala. Iparraldean laubost idazle gara emakumeak.

— Emakumea berandu iritsi da euskal literaturara ala irakurleak berandu ezagutu du emakumeen literatura?

— Emakumeak betidanik idatzi du, baina gutxi argitaratu zaio. Egoera berdina da Iparraldean eta Hegoaldean.

Argitaratzen dutenek, gainera, gizonetako baino ohiartzun apalagoa izaten dute prentsan eta beste komunikabideetan.

— Emakumeak idazle liburuak argitaratu zenuen. Emakumeen lana defendatzeko asmoarekin?

— Nire asmoa zen emakumeen literatura irakurleei hurbiltzea. Iparraldeko eta Hegoaldeko emakume idazleen inguruko ikerkuntza egin nuen. Hamabost egileren testu zatiak eta olerkiak bildu nituen antologia batean eta euren biografiekin aberastu nituen. Liburuak jasotako erantzunagatik, zer edo zer lortu nuela esan daiteke, han

“Iparraldeko idazleok harreman zuzena dugu irakurleekin, haien kritikak eta aholkuak jasotzen ditugu. Nonbait, gure liburuak irakurtzen dituztelako da hori”





# “ohiartzun apala du”

aipatutako idazle batzuek beste argitalpen batzuetan agertu ziren eta. Dena den, horrelako antologiak berehala zaharitzen dira, idazle gehiago sortzen direlako.

— **Zer eskaintzen dio emakumeak euskal literaturari?**

— Edozein hizkuntzatan egiten den literaturari, emakumeak bere munduaren ikuspegia ematen dio. Ahots ezezagun baten hedapena da emakumeok egiten dugun literatura. Esan beharrik ez dago, ez duela berdin idazten Mauledo emakume batek edo Pariseko batek.

— **Zuk zergatik idazten duzu?**

— Komunikatzeko eta irakurleari irakurtzeko unean atsegin pixka bat emateko.

— **Zuberotarrez idatzi duzu inoiz?**

— Liburu bakarra dut zuberotarrez, *Pakean Utzi Arte*. Zuberoan kokatzen den detektibe istorioa da. Euskalkia orduan ikasi nuen eta liburuak praktikatzeko egin nuen. Gainerako liburuetan batuerako aditzak eta Iparraldeko hitzak erabiltzen ditut.

— **Zuberotarrez irakurtzeak mugak sortzen dizkie irakurleei?**

— Bai, zuberotarrez bereziki. Iparraldeko euskara nahiko batua dela uste dut eta gehienek ulertzeko gisakoa. Aspalduko ohitura da euskaraz ira-

kurtzea iragan mende bukareratik. *Eskualduna* izeneko aste-kari bat bazen eta kasik etxe bakoitzak bat zuen. Gaur egun *Herria* aldizkaria dago eta euskaraz irakurtzeko ohitura oso zabaldua dago. Gainera, idazleok harreman zuzena dugu irakurleekin, haien kritikak, ikusmoldeak eta aholkuak jasotzen ditugu. Nonbait, gure liburuak irakurtzen dituztelako da hori.

— **Hegoaldeko literatura ezaguna da Iparraldean?**

— Guretzat ez dago bereizkuntzarik, dena euska-

raz idatzitako literatura baita. Iparraldeko kutsua gehien somatzen duzenok Hegoaldekoak zarete. Ohitura falta da.

— **Bost urte badira Epe-rra Ikastolako lehendakaria zarela. Nola ikusten duzu orain arte egindako lana?**

— Nire olerkietan esaten dudana bezala, kultura-heriotzaren aurkako presa da ikastola berria. Egunero galtzen dugun aberastasunaren aurka eraikitako presa. Guk bidea ireki dugu eta orain Iparraldeko kostaldean Urruñako ikastola eraikiko dugu, denon elkar-tasunarekin.

— **Poztasuna emango du horrek...**

— Euskal Herria bat den sentimendua ematen du. Ez da hainbaste ageri Hegoaldea, Nafarroa edo Iparraldea. Dena bat da eta elkarren ezagutzan oinarritutako batasunean ikusten dut etorkizuna. ■

“Kultura-heriotzari aurre egiteko presa da *Eperra* ikastola berria. Egunero galtzen dugun aberastasunaren aurka eraikitako presa”

**JUBAR**  
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide poligonoa, 18 • ARRASATE  
Tel.: 79 10 20 • Fax: 79 08 17



ARRASATE GARBIKETAK, Koop. E.  
AUTOZERBITZUA

- Auto garbiketa eskuz
- Jarlekuen eta tapizatuen garbiketa
- Olio, gurpil, bateria, filtro eta buxien aldaketa zerbitzua
- Mantenimendua
- Motelgailuak (amortiguadoreak), ihes tutuak
- Mekanika orokorrean
- Txanda aurrez eskatu

Uribarri, 20 • ARRASATE • Tel.: 79 52 76



ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN SALMENTA

Erdiko Kale, 7  
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

“PAL”

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 79 31 99 ARRASATE

**GAMMA**

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25


**URRATS**  
AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 79 87 74  
ARRASATE



## ■ Alberto Preciado

ARRASATEKO OSPITALEKO TELEFONISTA



**S**oraluzen jaio, baina Eibarren bizi da. 42 urte ditu eta 10 urte daramatza Arrasateko ospitalean telefonozain lanetan. Gustura dabilela dio, baina behin betiko lana izatea gustatuko litzaioke. Albertok industria maisua ikasi zuen. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. Ospitaleko harreran egoten denez, bere aurpegia ezaguna egingo zaizue.

- 1.- Zein da zure horoskopoa? **Akuario**
- 2.- Sinestuna zara? **Bai.**
- 3.- Animalia bihurtzekotan? **Ez dakit**
- 4.- Zure akats bat/gauza on bat? **Puntualtasun handia/pazientzia handia daukat.**
- 5.- Zerk lotsaraten zaitu? **Ezerk ere ez.**
- 6.- Amets bat? **Behin betiko lana izatea. Gauregunekoabada, hobeto.**
- 7.- Zer kenduko zenuke mundutik? **Marjinezioa eta gosetea.**
- 8.- Gertakizun historiko bat? **Eibar lehen mailara igotea.**
- 9.- Nor miresten duzu? **Nire emaztea, nirekin duen pazientziagatik.**
- 10.- Zeri diozu beldurra? **Lan barik gelditzeari.**
- 11.- Zeozer garbatzen zaizu? **Ikasten jarraitu ez izana.**
- 12.- Negar egin duzun azken aldia? **Ez dut gogoratzen.**
- 13.- Zer falta zaio Arrasateri? **Egia esateko, ez dut ondo ezagutzen**
- 14.- Eta zuri? **Egonkortasuna lanean.**
- 15.- Lanbidez aldatzekotan? **Ez nuke aldatuko, nirea gustatzen zait.**
- 16.- Arrasateko gustuko toki bat? **Alde zaharra.**
- 17.- Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? **Etxeko kortinen errialak kentzea.**
- 18.- Zein egunkari irakurtzen duzu? **El Correo.**
- 19.- Gustuko janari bat? **Bakailaoa tomatearekin.**
- 20.- Liburu on bat? **Ez naiz liburu zalea**
- 21.- Filmik onena/txarrena? **El guardaespaldas/ Asko daude.**
- 22.- Musika talderik onena/txarrena? **Beatles/ Bakailao musika estiloa.**
- 23.- Telebistako saiorik onena/txarrena? **Filmak/ Telesailak eta lehiaketak**
- 24.- Egin dizuten oparirik politena? **Kate bat.**
- 25.- Denbora libreaz zertan pasatzen duzu? **Familiarekin.**
- 26.- Oporretarako toki bat? **Zumaia.**
- 27.- Etxeko lanik gorrotagarriena? **Arropa lisatzea**
- 28.- Gomendio bat? **Errespetoa izan guztiekin.**
- 29.- Zeren alde emango zenuke bizia? **Ez dakit.**
- 30.- 200 milioi pta. irabaziz gero? **Ez dakit zer egingo nukeen.**



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* **Elektragaiak**
- \* **Instalazioak**
- \* **Automatismoak**
- \* **Proiektuak**
- \* **Argiztapena**
- \* **Bobinaketak**


Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76



muebles

# GRUPO **ARKAUZ**

**ERAKUSKETA  
BERRIZTUA!**



**ALTZARI-DISEINUA  
APAINKETA**

**ZAPATU  
ARRATSALDETAN  
ZABALIK!**



**Grupo Arkauzen** denak dira abantailak.

Zatoz, eta daukaguna ikusi bezain laster, etxera eraman nahi izango duzu.

**Aprobetxa itzazu Grupo Arkauzen abantailak.**

## **A R E T X A B A L E T A**

Araba etorbidea, 20 • Tel./Faxa: 79 23 51



## ENRIQUE SANTIAGO, Sarobe Arte Eszeniko Guneko zuzendaria

# “Ez zarete damutuko opera hau ikusteaz”

Arrasate Musikalek bere zilarrezko ezteiak ospatzeko primerako festa prestatu du: igandean Sarobe Arte Eszeniko gunek “Iziar” opera antzeztuko du arratsaldeko zazpietan, Amaia antzokian.

Operak Artadiren eta Iranzuren istorioa kontatzen du. Bi gazteek elkar maite dute, baina beren maitasuna ezinezko istorioa da. Maitiminduek mila abentura biziko dituzte beren arteko amodioa defendatzeko. Romeo eta Julieta antzeko bat, baina Euskal labelarekin. Opera Miguel Oñate donostiarrak idatzi zuen 1906an.

### — Zer berrikuntza ekarri dio “Iziar” lanak operari?

— Gurea opera ulertzeko modu berria da. Euskal Ganbera Opera finkatu nahi dugu: egitasmo honen helburua opera laburrak euskaraz antzeztea da. Muntatzeko erosoia, antzezteko zailtasun handiegirik gabeko opera sortu nahi dugu. Hone-



la, opera herri txikietara hurbiltzeko aukera izango da. Jendeari ulertarazi nahi diegu opera ez dela bisoizko abrigoak jantzi eta antzokira joatea. Opera sentimendua da, poesia. Igandean hori erakutsiko dugu.

### — Nola bizi da opera Euskal Herrian?

— Arrasaten oso egoera berezia duzue. Miresgarria ikusten dut operaren inguruan dagoen mugimendua, baina orokorrean Euskal Herrian egoera tristea bizi dugu. Oso

kantore eta musikari onak daude, baina etxean ez ditugu ezagutzen. Kanpora joan beharra dute beren lana balioetsi dezaten. Tristea da, ezta?

### — Zer izkutatzen da “Iziar” operaren atzean?

— Lana eta ilusioa. Opera arte osoa da: musika, kantua eta antzezlana batzen ditu. Guk atal guztiak landu nahi izan ditugu. Antzezlanari adibidez garrantzi handia eman zaio. Modu berri edo gaur egungoan antzeztu da istorioa. Oso zaindua, antzezten denarekin bakarrik uler daiteke istorioa. Musika berriz, klasikoa da.

### — Arrazoi bat igandean jendea operara joan dadin.

— Primeran pasako dutela. Emozioa biziko dute, maitasuna, beldurra. Opera ezaetzeko egun aproposa da. Gainera, euskaraz ez jakin arren, istorioa ulertu eta jarraitu egin daiteke. Ez zarete damutuko Amaiera joanez gero.

## “Opera ez da bisoizko abrigoa jaztea eta antzerkira joatea, opera pasioa da”



# LASAGABASTER

## USTE OSOKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 79 27 27 / 79 13 55





laz bezala, aurtan ere azoka egingo da Sebero Altube plazan.

## Ekitaldi ugari Emakumearen Eguna ospatzeko

Urtean zehar badaude bereziak diren egunak, egutegian guztiok gogoratzen ditugun horietakoak: maiteminduen, aitarrena edo amarena, adibidez; edo emakumearen eguna eta langileena. Baina argi dago guztiak ez direla berdinak. Batzuk badirudi saltoki handien eskuetan geratu direla. Besteak berriz, ospakizunaren gaintetik eskabideakutsua ere badute.

Eta hona iritsi zaigu egun horietako bat: Emakumearen Eguna, martxoak 8. Festa eta eskabidea biltzen dituen eguna.

Asteburuan hainbat ekitaldi izango dira emakumearen egunaren inguruan, Arrasateko emakume taldeek antolatuta. Anto-

latzaileek egun honetarako "Denok batera" leloa aukeratu dute, haien esanetan "sexuen arteko berdintasuna denon gauza da, eta elkarrekin bultzatu behar dugu". Astebururako era guztietarako ekitaldiak prestatu dituzte.

Ekitaldiak larunbatean goizeko 9:30etan hasiko dira azokarekin. Base-rritarrak eta artisauak Sebero Altube plazan bilduko dira, hurbiltzen diren guztiei talo goxoa eskaini edo beren lanak erakusteko.

Gaueko 10:30etan Amaia Antzokian *Melody Sisters* taldeak "Con lo puesto" lana antzeztuko du. Bi emakumeren istorioa kontatzen du. Beren bizitzako unerik onenean

hiltzen diren bi emakumeren joan-etorriak.

Igandean ez da asperetzeko aukerarik izango. Eguerdian saltsa izango da bertso saioan: Ainhoa Agirreazaldegia, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga eta Andoni Egaña. Laukote honek izango du elkarri zer esana.

Goiz guztian Lore Gazteko dantzariak gora eta behera ibiliko dira Arrasateko kaleetan. Ines eta Naiara trikitilariak ere hor arituko dira. Ziur bat baino gehiago dantzan jarriko dutela.

Egunari amaiera emateko, arratsaldeko 7:30etan kale agerraldia izango da Sebero Altube enparantzan, herriko emakume talde guztiek deituta.

## aste gazte

### ■ LANA

- Elgoibarko Udalak administrazio laguntzaile bat betetzeko deia egin du. Epea: martxoak 11.

- Burlatako Udalak, administratiboa. Epea: martxoak 13.

- EHU-UPVk unibertsitateko irakasle titularrak eta unibertsitate eskolako irakasle titularrak behar ditu. Epea: martxoak 14.

- Nafarroarako enpresa eta turismo ekintzetarako teknikaria behar da. Epea: martxoak 18.

- Osakidetza odontologoak eta biologoak behar ditu. Epea: martxoak 20.

- Jakinarazlea behar du Arrasateko Udalak. Epea: BOEn argitaratu zain.

- Sestaoko Udalerako, xirula irakaslea behar da. Epea: BOEn argitaratu zain.

### ■ LEHIAKETA

- Errenteria Hiriko IV. bideo lehiaketa. 30 urtetik beherakoei zuzenduta, lanaren gehienezko iraupena 30 minutu. Epea: martxoak 20.

- *Gaztbideo* lehiaketa, gazteei buruzko bideo amateurren VI. erakustaldia, 20 minututik beherako iraupena, parte-hartzaileen gehienek 21 urtetik beherakoak behar dute izan. Epea: maiatzak 15.

### ■ ERRALDOIEKIN DANTZAN

- Erraldoiekin ibiltzen eta dantzatzen ikasi nahi baduzu, Kiliki eta Erraldoien konpartsa lagunak erakusteko gertu dituzu. Maiatzeko larunbat goizetan izango diren saioetan parte hartzeraz animatzen bazara, edo berri gehiago nahi baduzu, Gazte Bulegora jo.

**Berri gehiagorako:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
☎ 77 00 65



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Uribe auzoan etxebizitza salgai. Sukaldea, lau logela, egongela, bi bainugela eta trastelekua. Tel.: 79 27 45.

• Astigarragan etxebizitza berritua salgai. Tel.: 33 12 20. Gema.

### 2. Erosi

• Konpontzeko dagoen etxebizitza erosiko nuke 60 m<sup>2</sup> ingurukoa. Tel.: 77 10 44 eta 908 77 33 27.

• Arrasateko erdialdean igogailua duen etxebizitza erosiko nuke. Tel.: 77 02 79.

### 3. Errentan emateko

• Aramaion plaza ondoan dagoen etxebizitza alokatzen da. Tel.: 79 60 88.

• Torrevejian lau laguntzako apartamendua alokatzen da Aste Santuan. 35.000 pta. Erdigunean eta eguzkitua. Tel.: 79 53 18.

• Ikasleendako 110m<sup>2</sup>ko etxebizitza alokagai Eskola Politeknikotik gertu. Tel.: 79 52 17 gaueko 20:00ra arte eta 21:00tik aurrera 79 07 33.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza txikia, atiko edo teilatutua alokatuko genuke, merke. Tel.: 70 09 52. Gauez.

• Hiru laguntzako etxebizitza behar da Arrasaten. Tel.: 77 12 00. Xabier Sagartzazu.

### 5. Etxe konpartituak

• Etxean taldea osatzeko jendea behar da Bergaran, Zubiaurren kaleko 16an, 2. solairuan. Tel.: 76 71 12.

• Lagun bat behar da Eskola ondoan etxebizitza osatzeko. Tel.: 77 08 44.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Roneoko etxeetako lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 70.

• Etxebizitza batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 948 25 47 16. Deitu gaueko 22:30ak baino lehen.

• Erguinen bi solairuko garajea salgai. Tel.: 79 48 91 eta 79 96 39.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)  
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Kontzeziñon lehenengo solairuan garajea salgai. Tel.: 79 18 76.

• Bañez Doktorea kalean garajea salgai. Prezio ona. Tel.: 79 93 91. Jose Mari.

### 9. Errentan emateko

• Erguin auzoan garajea alokagai. Tel.: 79 13 97. Gauez.

• Uribe auzoan garajea salgai. Tel.: 79 27 45.

• Roneoko etxeetan garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 19 64.

• Taberna bat alokatzen da. Tel.: 77 14 93.

### 10. Errentan hartzeko

• Garajea alokatuko genuke. Lur azpikoa ez balitz hobe. Tel.: 79 54 23. Jaione.

## LOKALAK

### 14. Errentan emateko

• Fernandez janaridenda alokatu

nahi da. Oso bezero onak ditu. Tel.: 79 48 91 (Aurora). 79 96 39 (etxe-koa).

• San Andresen frutadenda eskualdatzen da. Tel.: 79 72 91. Gaueko 21:30etatik aurrera. Matilde.

• Bergarako Bolu kalean lau gelako bulegoa alokagai (Osorik edo gela-ka). Tel.: 76 58 91.

• Izarra dorrean 110 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Tel.: 79 25 26.

• San Joan hotel berritutik gertu eta leku onean 62 m<sup>2</sup>ko lokala alokagai. Edozein kontsultarako aproposa. Tel.: 79 18 95. M<sup>a</sup> Pilar.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte batzuk toki baten bila dabilta. Tel.: 79 56 14. Igor.

• Gazte talde batek toki bat errentan hartuko luke. Tel.: 79 53 18. Asier.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun klinika laguntzai-

lea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 09.

• Asteburuetan edozein lan egiteko emakumea gertu. Tel.: 79 62 69. 21:00etatik aurrera.

• Esperientziadun saltzailea lan egiteko gertu. Tel.: 79 31 58. Asun.

• Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Orduka ere bai. Tel.: 79 51 29.

• Asteburuetan eta jai egunetan emakume euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 76 37 80. Eguerdietan.

• Neska gertu umeak zaindu edo kamarero lanak egiteko. Tel.: 79 57 64.

• Arduradun neska gertu dago orduka garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. Tel.: 71 53 74. Deitu goizez edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume euskalduna gertu etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun neska euskalduna denda batean lan egiteko gertu. Tel.: 79 81 16. Estibaliz.

## 18. Eskaerak

• Emakume euskalduna behar dugu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 35 73.

• Kamarero euskaldunak behar dira. Tel.: 78 35 26.

• Adineko senar-emazteak zaintzeko 35 urtetik gorako emakumea behar da. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 76 51 67. Arratsaldeko 20:00etatik 22:00era arte.

• Kamarero gaztea behar da. Tel.: 79 67 12. Goizez.

• Garrailari laguntzailer lanetarako mutil arrasatearra behar da. Tel.: 907 70 20 46.

• Kamarero euskalduna eta esperientziaduna behar da. Tel.: 79 24 58.

• Asteburuetarako kamareroa behar da jangelan zerbitzuko. Tel.: 79 68 57.

• Emakumea behar da taberna bateko sukaldean lan egiteko. Tel.: 79 00 34.

• *Esukaldunon Egunakaria* Arrasaten banatzeko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eta autoa izatea beharrezkoa da. Tel.: 79 75 58. Juli. Arratsalde.



## 19. Denetarik

• Lanak ordenadoren pasatzen dira. Tel.: 79 79 84.

• Suitzara *au pair* bezala joateko neska bat behar da. Frantsez apur bat jakitea beharrezkoa da. Tel.: 79 40 91.

• Eskuak jarrita osatzeko modu naturala (Reiki). Tel.: 79 45 74.

## IRAKASKUNTZA

## 20. Eskaintzak

• OHO, LH, DBH eta latin eta ingeles eskola partikularrak emango nituzke. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 79 47 35.

## 21. Eskaerak

• 2. REMeko ikasgaiak lantzeko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 79 19 36. Aitor.

• Kontabilitate eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 79 36 83. Gaueko 21:30etatik aurrera deitu.

• 1. LOGSEko ikasle batek kimika eta matematika eskola partikularrak hartuko lituzke. Tel.: 79 68 37.

• Lehen injineri teknikoko ikaslea naiz eta kimika orokorreko eskola hartuko nituzke. Tel.: 79 21 51.

• Frantses eskolak hartuko nituzke. Tel.: 78 08 24. Deitu 20:00etatik aurrera. Maite.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Yamaha 250 SR Special, SS-AM motorra salgai. 9.000 km. Prezioa: 250.000 pta. Tel.: 79 70 58.

• Peugeot 405 GLD autoa salgai. 1.900 diesela. Gorria. Egoera onean. VI-N. Tel.: 70 02 05

• Opel Corsa 1.200, SS-AC salgai. 250.000 pta. Tel.: 77 02 18.

• Derby markako motorra salgai. 49 cc. Tel.: 79 73 42.

• Super 5 Turbo salgai. Egoera ona. Tel.: 76 56 55 edo 79 75 11. Juan Luis.

• Renault 21 GTS autoa salgai. Egoera ona, lau urte t'erdia. 68.000 km. Tel.: 76 30 12.

• Golf autoa salgai. Lehen modeloa ITV otsailean pasa zuen. Motorra rektifikatua. Prezioa: 175.000 pta. Tel.: 79 27 24.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Faxdun telefonoa salgai. Berria eta prezio onean. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Ordenagailua salgai. Tel.: 970 41 74 08. Jose.

• Kenwood 758 R autorako irratia eta CDa salgai. Bi subwoofer JBL 400 w ditu. Prezio interesgarria. Tel.: 79 26 16 edo 79 27 70. Urtzi.

• Mastin arrazako bitxakurkume salgai. Tel.: 33 05 95.

• Fagor markako 10 litroko ur bero-gailua salgai. Tximinia du eta ia berria dago. Merkea. Tel.: 79 65 31. Tere.

• Game Boy-a salgai. 2 joko. Tel.: 79 12 95. Miren.

• Bigarren eskuko Mercury markako parapentea salgai. Tel.: 79 48 09. Itziar.

• Bulegoko lau aulki salgai. Egoera ona. Egongela baterako ere aproposak izan daitezke. Tel.: 79 79 46.

• Xake ordenagailua salgai, erdi prezioan. Berria da. Tel.: 79 57 64.

• Trial-eko bizikleta salgai. Berri-berria. 40.000 pta. Tel.: 79 93 03. Iban.

• 10 x 3,5 Movil home-a salgai. 3 gela, bainugela, sukaldea eta jangela. Oso egoera onean. Tel.: 79 89 86. Gauez.

• Trial Sin-erako bizikleta gorria salgai. Egoera onean eta merkea. Tel.: 79 96 31.

## 27. Erosi

• Single diskoak erosiko nituzke. Tel.: 52 65 77.

## 29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa oparituko nuke ondo zaintzekotan. Tel.: 79 90 46.

## 31. Galdu

• Giltzak galdu ditut Uribe auzoan.

Tel.: 71 53 40.

• Urtarrilaren 20an edo 21ean urrezko eskumuturrekoa galdu nuen Arrasaten. Zuria eta gorria da. Tel.: 79 84 23.

• Joan den larunbatean Casio markako erlojua galdu nuen San Viator Txikin futbol entrenamenduan. Tel.: 79 17 32.

• Otsailaren 22an Aretxabaletako Ezkutu tabernan giltzak eta kartera galdu nituen. Tel.: 79 51 21.

## 32. Aurkitu

• Zaldibarren forro polarra eta patin batzuk aurkitu nituen. Tel.: 79 28 38.

• Muru bidean ezkontzako eratzuna aurkitu nuen. Tel.: 79 53 40. Gaueko 10:00etatik aurrera.

• Corbeta markako mendiko bizikleta aurkitu dugu. Galdu duenak Udaltzaingoarekin jarri dadila harremanetan. Tel.: 79 14 39.

• Opari bat aurkitu nuen otsailaren 19an Garibai etorbideko telefono kabinan. Tel.: 77 11 68. Jon.

## 35. Harremanak

• Arrasateko punky estiloko musika egiten duen talde batek baxujolea behar du. Tel.: 79 66 70.

## 37. Bestelakoak

• Artzain txakur aleman eme baten bila nabil nirearekin nahasteko (nirea artzain alemanaren eta artzain alsaziarren nahasketa da). Tel.: 70 03 37 edo 79 36 12.

Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Neurria ez da arazoa izango udaberriko moda gaztea jatzeko.

Neurri guztiak ditugu, baita zabalenak ere.

# Laura



Erdiko Kale, 30 • ARRASATE  
Tel.: 79 05 80



■ **Horoskopoa**

- **Aries** Etxeko giltzak barruan utziko dituzu.
- **Taurus** Muturluze ibiliko zara ondorengo egunotan.
- **Gemini** Kirola egitea ez zaizu bat ere gaizki etorriko.
- **Cancer** Lagunek sekulako jaina antolatuko dute zure ohoretan.
- **Leo** Beldurrezko film bat baino ikaragarriagoa zara.
- **Virgo** Afrikako misioetan aurkituko duzu zure bokazioa.
- **Libra** Eguzki errainuek zure etxea alaituko dute.
- **Scorpio** Liburuak ez dira egongelako hormak apaintzeko bakarrik.
- **Sagitaris** Soineko gorri horrekin auzoko mutil guztiak liluratuko dituzu.
- **Capricorn** Sindikalista izateko jaiotzen zinen, ala ez?
- **Aquarius** Irten zaitetz kalera aire freskoa hartzera.
- **Piscis** Lagun batek afari erromantiko batean gonbidatuko zaitu.

■ **Hitz gurutzatuak**

1	2	3	4	5	6	7
8		9				
10		11		12		
13			14			
15				16		17
18				19		
20			21			

JUAN BAUTISTA AGORRIA

**Horizontalak** 1. Ilundu aurreko egunaren azken orduak. 8. Eguzkiaren jainko egiptotarra. 9. Aspertu, gogaitu. 10. Izen bereko landarearen hostoetatik ateratzen den gai tintatzaile urdina. 12. Masa. 13. Saltsamin-mina, piperrautsaz bereziki egina. 15. Euskal emakumeek erabiltzen zuten buruzko zapi txikia. 16. Dirurik gabe. 18. Bizkaiko udalerria. 20. Isilik egoteko keinuari ezartzen zaion osakunea. 21. Porrota edo lur-jotzea, diru hondamendia.

**Bertikalak** 1. Ferrerias kaleko taberna bat. 2. Lanerako erabiltzen den edozein tresna. 3. Zelako. 4. Nor pluralean. 5. Zuk eta nik. 6. Gorputzaren edozein partetako garapenik eza. 7. Jacques, pertsonaia historiko frantseza. 11. Toki batetik bestera joan. 14. Douglas, zinegile estatubatuarra jatorriz daniarra. 17. (Ald.) Zaletasuna adierazten duen atzizkia. 19. Hemeretzigarren letra errepikatuta.

**Horizontalak:** 1. Ilunabar. 8. Ra. 9. Okitu. 10. Anil. 12. Ore. 13. Tabasko. 15. Ibiki. 16. Fi. 18. Elio. (Ald.) Kol. 19. Rt.

**Bertikalak:** 1. Irati. 2. Lanabes. 3. Nolako. 4. Ak. 5. Blok. 6. Atrofia. 7. Rue. 11. Ibil. 14. Sirk. 17. rto. 20. Ist. 21. Krak.



# Lan eskaintza

ARKO • Arrasate Komunikabideak

## Kazetaria

**Baldintzak**

- Euskara ondo menderatzea
- Kazetaritza ezagutzea
- Gida baimena eta autoa

**Langunearen betebeharrak**

- Asteburuetan eta jaiegunetan kazetari lanak egitea Arrasate Pressen eta Arrasate Telebistan.

**Curriculumak aurkezteko epea MARTXOAREN 13AN BUKATUKO DA.**

**Curriculumak ARKOko Administrazio Bulegoan jasoko dira**

Otalora Lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 79 02 26



# Asteartean *Kaleidoskopia* kultura saioa Arrasate Telebistan

*Kaleidoskopia* kultura saioan izango da zer ikusi eta entzun asteartean, gaueko 21:30etan. Besteak beste, Asier Altunari elkarrizketa luze eta sakona egingo diote. Bergarar honek Telmo Esnalekin batera *Txotx* film laburra zuzendu du. Gauza interesgarri eta bitxiak ez dira falta izango solasaldian.

Monterronera, bestalde, hainbat liburu berri etorri da, eta horien aurkezpena egingo du Oihana Altunak. Libururen bat ere gomendatuko digu.

Zineari eskainitako atalean ikuskizun afixetan dauden filmei buruz arituko da Maria Agirre. Gainera, zinemara doan joateko, sarrerak banatuko dira, telefono bidez egingo den lehiaketan. Horretarako 77 06 90 telefonora deitu behar da.



*Kaleidoskopia* kultura saioa aurkezleak.

## Arrasate Irratia 107.7 FM

### LARUNBATA

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30 **Musika**
- 10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte eta Belen Aranbarrerekin.
- 11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoak, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olazola eta Eusebio Iñarrarekin.
- 12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazina, Mikel Lizarralderekin.

### ASTELEHENA-OSTIRALA GOIZ-EGUERDIZ

- 9:00 **Albistegia**
- 9:30-11:00 **Goizoro**
- 14:30-16:00 **Bixau** orduan

### GAUEZ

- Astelehena**
- 21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe eta Rafa Mungiarekin.
- Asteartea**
- 22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte eta Garbiñe Perezekin.
- Asteazkena**
- 22:00-23:00 **KK2A**. Biteri Ikastetxe Nagusiko ikasleek eginiko magazina.
- Osteguna**
- 22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Carenas eta Kaïttin Allenderekkin.
- Ostirala**
- 22:00-23:00 **Music Box**. Edu Abasolo eta Pedro Costarekin.
- 23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika, Daisy D. eta Betty Boorekin.

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 7	ASTELEHENA, 9	ASTEARTEA, 10	ASTEAZKENA, 11	OSTEGUNA, 12	OSTIRALA, 13
Astean zehar eskainitako saiorik interesgarrienen erre-pika.	13:30 <b>Astebete</b> . (Errepika)	13:30 <b>Mondrasport</b> . (Errepika)	13:30 <b>Lotsa Barik</b> . (Errepika)	13:30 <b>Munduari Buel-taka</b> . (Errepika)	13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)
13:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . (Errepika)	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	19:15 <b>Kukaratxa Motel</b> .	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .
14:15 <b>Astebete</b>	21:30 <b>Mondrasport</b> . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zal-dibarko futbito txapelketa, gonbidatuak eta Arrasate Kirolak lehiaketa.	21:30 <b>Kaleidoskopia</b> . <i>Unai Iparragirre</i> eta <i>Aitziber Langaran</i> . Gonbidatua: Asier Altuna.	21:30 <b>Tertulixan</b> . <i>Inazio Olaizola</i> . Inazio eta bere gonbidatuek azken asteetako gertakariak izango dituzte aztergai.	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak</b> .	21:30 <b>Astebete</b> . Astean zehar jasotako berrien gainbegiratzea.
14:45 <b>Munduari Buel-taka</b> . <i>Elene Alberdi</i> . (Errepika)				21:30 <b>Kukaratxa Motel</b> . <i>Betirtze Iñurritegi</i> eta <i>Alazne Ruiz de Munain</i> . Gaztetxoentzako lehiaketa.	





**L** 950ean ateratako argazkia duzue gaurkoa. 31ko kintoek bazkarja egin zuten egun hartan eta Don Rikardon txaletaren aurrealdean jarri ziren taldeko erretraturako. Txaleta, gaur egun Abaroa dagoen tokian zegoen, errepidera begira. Taldeko lau bakarrik bizi dira orain-

dik: Feliz Amozarrain *Paiko*, Jose Azkarate, Floren Gonzalez *Atano* eta Daniel Bengoa.

Goiko lerroan eta ezkerretik eskuinera:

Felix Amozarrain *Paiko*, Martin Heriz, Langaran *Kaxero*, Felipe Yarza, Balentin *Tristan*, Javier *Antoña*, Esteban Aguilar *Panaderito* eta Kalisto

Urzelai. Erdiko lerroetan, ezkerretik eskuinera: Karmelo *Pienosos*, Jesus Leibar, Jose Antonio Goñi, Luis Galdos, Juan Etxebarria, Klaudio *Gasoliner*o, Luzio Okina, Donato Aranburuzabala, Hilario Uzarraga, Emilio Vitoria, fraide ezezaguna, Jose Azkarate, Floren Gonzalez *Atano*, Victor Gorosabel *Axeri*, Antonio

Balerdi, Bixente Ugarte *Goiru* eta Klaudio Pagaldai.

Beheko lerroan: Daniel Bengoa, Ignacio Lemona, Felix Arenaza *Takolo*, Leandro Agirre, Esteban Dolara eta Beltran.

-----  
Berriemailea:  
Iñaki Yarza.



- Inportazioko autoak
- Marka guztiak
- Kalitate-preziorik onenak



- Sarrerarik gabeko finantziazioa
- Mota guztietako autoak

• BOLUMENBAKARRAK • LURROROTAKOAK • FAMILIARRAK

Amillaga, 10 B • BERGARA (ITV ondoan) • Tel./Faxa: 76 04 58



*Edo lanez aldatzen duzu,  
edo umezain bat hartu,  
edo familia osoa zoratu,...  
edo bestela geurera etorri:*


# IKAS 10

**IKAS 10, LA MERCED IKASTETXEAK**, zerbitzuen kontzeptu berri bati jarri dion izena da. Zerbitzu hauek zuei hobetoen datorkizuen modura uztar daitezke: **ORDUTEGI ZALUA**, goizeko **07:30etatik arratsaldeko 18:00ak arte**, zuentzat kosturik gabekoa. **HAURTZAINDEGIA**, 2 urtetik 6 urtera arte. **AUTOBUS** zerbitzua Eskoriatzatik. **JANGELA** edo jangela librea, eta abar. Irakaskuntza kalitaterik hoberena, zerbitzu zabal eta onenekin, eta hori guztia **preziorik hoberenean**, zure seme-alaben heziketak ez ditzan hankaz gora jarri, ez zuen elkar bitzta, ezta zuen aurrekontua ere. Dei iezaguzu, galde ezazu eta aukerarik hoberena hartu.  
**Zuen beharretara moldatuko gara eta.**


*Haur hezkuntza  
Lehen hezkuntza • DBH  
2 urtetik 16 urtera*

## Haurtzaindegia

2 urtetik 6 urtera



07:30etatik 18:00etara



*la merced*  
IKASTETXEA

ARRASATE

(943) 79 27 73

La Merced-ek  
**GEHIAGO**  
eskaintzen dizu.

La Merced Taldea (Arrasate - Eibar - Gasteiz - Leioa - Zumarraga)



sofa  
leku

a, eme... interiores



centro  
hogar  
muebles

grupo



# Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 79 15 03
- a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92
- sofa leku**, Zigorrola, 1 ▪ ARRASATE ▪ Tel.: 77 14 92